

Berrigara



Kultur Errota



Euskara elkarten kultur zirkuitua



**MECA
BERGARA**

Amillaga 5
BERGARA
f. 943 76 40 68



OLIO ALDAKETA
4.795 pezetatik aurrera

BALAZTA-PASTILAK
5.650 pezetatik aurrera




...Eta RENAULTen
MENU HORIAekin,
25 punturen errebisioa eta
autoaren garbiketa **DOAN**

Angiozar

Ubera

San Prudentzio

Mekolalde Osintxu



■ **domeka, martitzen eta eguenetan, 21:00etatik 22:00etara, betiko guneetan**

■ **astelehen, eguazten eta eguakitzetan, 21:00etatik 22:00etara, betiko guneetan**

Zaborra

Behar den unean

dagokion gunean

Informazio gehiago nahi izanez gero,

deitu 943 79 33 99

telefonora





Munduan eta mundutik kanpo

Arantzazu Loidi / Kazetaria

Aspaldi ikasi genuen mundua alde globala dela eta munduaren edozein bazterretan gertatzen den edozer gure begi eta belarriez ikusi eta entzun dezakegula berehala. Teoria hori frogatuta geratzen da ia egunero, batez ere nonbait ezbehar zorigaiztokoren bat gertatzen denean. Orduan, orain Ertamerikan bezala, euren begi luzea luzatu egiten dute komunikabideek eta izuaren izua geureratzen dute, azkar bai azkar. Muturren aurrean dugun bitartean, hurbil, hurbilegi sentitzen dugu hain urrutiko hori. Gure kontzientzia arinak astuntzeko bezain hurbil eta pisu. Oraingoa ere izugarria izan da, eta ez dakigu izugarrikeria hori noiz arte erakutsiko diguten Mc Luhanen jarraitzaileek, baina arazoak bizi-bizi jarraituko duen arren, alde hori ez da hain global izango hemendik egun batzuetara.

Baina tira, egun hauetan komunikabideek egin duten lanak alde onak ere baditu, eta gure inguruan behintzat, bero eta kezkatu, solidario ikusi dugu jendea. Ez dut uste itxurakeria hutsa de-

nik, eta ia denok akordatuko ginen gure laguntzatxo emateaz. Bakoitzak daki zergatik, eta horrek ez dio axola orain. Gainera, erraldioen aldetik ere ikusi dira keinuak: giza laguntza, dirubilketak, herrialde kaltetuen zorra barkatzea, eta nik jakin ez dudana beste asko, espero dut.

Eta urruti, baina gure munduan gertatu den horrek komunikabideetan eta ondorioz, gure ahotan lekua hartzen zuen bitartean, beste mundu batekoak ere oihartzun handia izan du, eta kontrasteagatik edo, beldurgarria irudituzait. Discovery-k bederatzi eguneko bi-

daia egin du, sekulako misioa, eta denetan garrantzitsuena, espainiar bat joan da barruan. Ez dut ukatuko gertakari garrantzitsua denik. Baina Mitch hurakanaren egun berberetan gertatu delako, edo horretan zenbat diru gastatu ote duten pentsatzen jarri naizelako, edo bidaia horren xehetasunik inozoenak ere zehatz-mehatz kontatu dizkigutelako, edo espainiarren chauvinismoari hozkia diodalako, zer pentsa eman dit. Aldea globala espaziora iritsi da egun batzuez, eta gizakiak lortu bidetan dituenekin ametsetan jarri gaituzte: grabitaterik gabeko mundua, mundu berrien deskubrimendua, gizakiaren gorputzaren erreakzioak ezagutzea, espazioan zaharren egoitzak jartzeko proiektua...

Baina oraindik ez dugu lortu mundu honetako naturaren indarrari aurre egiterik, mundu honetan erdi bizi edo erdi hil daudenen bizia salbatzerik, mundu hoberik. Ez du zentzurik, baina lehenago iritsiko gara Martitzen bizi izatera, nikaraguarrei bizi-tza duina ematera baino. Hau mundua! B

"Oraindik ez dugu lortu mundu honetako naturaren indarrari aurre egiterik, mundu honetan erdi bizi edo erdi hil daudenen bizia salbatzerik, mundu hoberik"

■ barruan



Iñaki Agiriano

Medikua

"Ospitale txikietako larrialdi zerbitzuen kezka nagusietakoa garraioarena da"

8. orrialdean.



Maite Toledo

Behobia-Donostian

"Askok mozorrotuta korritu zuten eta barreari ezin eutsiz, bareak heldu zidan"

21. orrialdean.



Xabier Mujika

Mujika gozotegikoa

"Pastelak jateko edozein ordu da ona; Jateko, txikiak gustokoago ditut"

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1951. Azaroaren 9an Silbestre Ariznabarreta Zaldibia "Txibisto" hil zen 84 urte zituela. Garai batean, inguruko bidelapurrik beldurgarrienetakoa izan ei zen. 70eko azken urteetan Bergarako jaietako "panpin" ofiziala izan zen, gaur egun Bitorianatxo den moduan.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1954. Azaroaren 10ean, 700 urte lehenago kanpora bidalitako beneditarrak Leirera itzuli ziren.
1926. Azaroaren 11n J. Guridik "El Caserio" estreinatu zuen.
1917. Azaroaren 12ko udal hauteskundeetan, Iruñean lehenengo zinegotzi abertzaleak aukeratu zituzten.

MUNDUAN GERTATUA

1979. Azaroaren 11n Javier Ruperez, UCDko kanpo harremanetarako idazkaria, bahitu zuen ETAk.

z o z k e t a k

BONO LOTO

Eguakitza 6
3-7-15-20-42-48 (osag.27/er.0)
Astelehena 9
8-11-25-28-31-48 (osag.9/er.2)
Martitzena 10
2-21-22-26-30-35 (osag.33/er.6)
Eguaztena 11
11-23-27-32-33-38 (osag.47/er.9)

PRIMITIVA

Zapatua 7
8-10-16-17-21-29 (osag.6/er.8)
Domeka 8 Gordoia
9-19-36-40-43-45 (osag.2/er.3)

ONCE


Eguakitza 6: 60.315 (K. seriea: 026)
Astelehena 9: 02.654
Martitzena 10: 40.141
Eguaztena 11: 85.713

BESTE BATZUK

Aek eguneko bidaia Karibera:
21.129

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Hodeiak eta zero estaliak nagusituko zaizkigu astebukarran. Tarteka euria egingo du eta mendi gailurretan elurra. Temperaturak behera egingo du; haizeak iparretik joko du arin.

Eguzkia

Domeka, azaroak 15



Sortu: 08:03



Gorde: 17:59

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

Ilargiaren aldiak

-  Ilbehera: azaroak 11
-  Ilberri: azaroak 19
-  Ilgora: azaroak 27
-  Ilbete: abenduak 3

max. min. euria

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 5	13	7	1,8
Eguakitza 6	15	7	-
Zapatua 7	19	3	-
Domeka 8	21	3	-
Astelehena 9	22	6	2,1
Martitzena 10	17	10	1,9
Eguaztena 11	17	8	7,1

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Algarratz

Ale garratz-garratzak ematen dituen sastraka. Landaturik hartzen da hemen.
Ribes uva-crispa.



JOSU OKINA



Eva Flores
Azaroaren 14an 25 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



Tomas Flores
Azaroaren 14an urtebetetzea. Urte askotarako! Familiakoak.



Amaia Zabaleta
Azaroaren 13an 23 urte. Urte askotarako Zaba! Koadrilakoak.



Ainara Jauregi
Azaroaren 12an 14 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Luis Lenisoro
Azaroaren 24an 40 urte. Urte askotarako! Hodei eta Aitzol.



Narbaizatar Anaje
Azaroaren 19an urtebetetzea. Zorixonak! Sorgiñak.

Farmaziak

Eguakitza 13:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Zapatua 14:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Domeka 15:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Astelehena 16:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Martitzena 17:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Eguaztena 18:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguena 19:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Ogia

Domeka 15: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

zorion agurrak



Jorge Alvarez
Azaroaren 9an
19 urte. Urte asko-
tarako! Etxekoak
eta lagunak.



Ana Inclan
Azaroaren 8an
6 urte. Urte asko-
tarako! Moreno
familia eta Marisa.



Hodei Lenisoro
Azaroaren 15ean
12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nerea Ugarte
Azaroaren 9an
urtebetetzea. Urte
askotarako! Julen,
Josu eta familia.



**Miguel Angel
Unamuno**
Azaroaren 4an
urtebetetzea. Urte
askotarako! Loibak.



**Miguel Angel
Aransaez**
11n 24 urte. Urte
askotarako! Neska
eta familiakoak.



Ion Linazisoro
Azaroaren 15ean
7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ederne Martxena
Azaroaren 15ean
21 urte. Urte asko-
tarako! Koadrilako-
ak eta etxeokak.



Ederne Aldana
Azaroaren 8an
60 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Idoia Herran
Azaroaren 12an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Antonio Fernandez
Azaroaren 16an
48 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Iñaki Diez
Azaroaren 15ean
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Juan Karlos
Lazkano**
9an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Aitor eta Ainhoa.



Ainhoa Lazkano
Azaroaren 5an
3 urte. Urte askota-
rako eta muxu handi
bat! Etxekoak.



Aitziber Albistegi
Azaroaren 13an
17 urte.
Urte askotarako!
Lagunak.



M. Mar Alvarez
Azaroaren 12an
37 urte. Urte asko-
tarako! Senarra eta
seme-alabak



Iosu Ormaetxe
Azaroaren 14an
4 urte.
Urte askotarako!
Aita eta Gorka.



Lydia del Bosque
Azaroaren 3an
urtebete.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Luisa Torres
Azaroaren 6an
83 urte.
Urte askotarako!
Alabak eta ilobak.



Ederne Alvarez
Azaroaren 4an
17 urte. Urte asko-
tarako! David eta
koadrilakoak.



Iosu Diaz
Azaroaren 17an
4 urte.
Urte askotarako!
Alatz eta etxeokak.



Asier Arriola
Azaroaren 13an
5 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Inazio.



Patxi Alberdi eta Iraitz Artola
Egurra nolako, ezpala halako.
Azaroaren 18an urtebetetzea.
Urte askotarako!




URTEURRENA

Sabina Gauba Lete

Lehen urteurreneko meza domekan,
azaroak 15, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.


*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde-
z aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*



URTEURRENA

**Julian
Portu Beain**

Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroak 15,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.




*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde- z aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Angeles Conde Borrajo

Lehen urteurreneko meza domekan,
azaroak 15, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.


*"Ez ezazue negarrik egin, Jaungoikoaren ondora noa,
ban izango nauzue zain. Ni hil natz, baina familia eta
lagunenganako maitasunak bizirik dirau: lurtean maite izan
zaituztedan moduan maite izango zaituztet Zeruan ere."*
San Agustin



URTEURRENA

**Pedro
Sevillano Vicente**

Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroak 15,
goizeko 11:00etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde- z aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

■ jaiotakoak

BERGARA
Andoni Barribero Igarza
Urriak 31
Iker Otadui Sanz
Azaroak 5

ANTZUOLA
Jon Etxezarreta Irizar
Urriak 25

■ hildakoak

BERGARA
Manuel Jimenez Milan
Azaroak 7, 59 urte

ANTZUOLA
Serapia Larrañaga Agirre
Azaroak 10, 88 urte

ANTZERKIA

► **Ados** antzerki taldearen "Desperrados" lana bihar, zapatua, 21:30etan Azpeitiko Zelaitxo antzokian.

MUSIKA

► **Nazioarteko jazz-blues jaialdia Elorrion:** gaur, eguakitza, **Out to lunch** 23:00etan Ateneoan. Bihar, zapatua, ordu berean, **Honey Boy Hickling's**.

► Jam aretoa. Bihar, zapatua, **Vargas Blues Band eta Ritual de lo habitual** taldeak. Eguaztenean, hilak 18, **Motorhead eta Anarko**, 21:00etan.

► **Frenopatics, Gospel Killers eta Parasma** gaur, eguakitza, 20:30etan Pol-Polen. Ikasleen eguna ospatzeko kontzertua.

► **Kultur Errota:** Caroline Phillips eta Michel Ducau, eta Ander Lipus domekan 20:00etan Pol-Polen. Sarrera doan.

► **Begarako Orfeoia eta Opus III Percussion Ensemble.** Orfeoiko kide izan direnei omenaldia egingo zaie datorren zapatuan, hilak 21, Udal Pilotalekuan. Sarrerak Kultur Etxean, Ariznoa kafetegian eta Larrañaga gozotegian salgai.

KONTZERTUA

"Alaitz abesbatza"

Noiz: zapatuan, 20:00etan
Non: San Pedron
Sarrera doan

Udazken Kulturalaren programazioarekin jarraituz, Gasteizko Alaitz abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, San Pedro parrokian. Gasteiztarrak Santa Marinako Jai Batzordeak joan zen uztailaren 18an antolatutako "Euskal Herria kantuz" jaialdian izan genituen eta zapatuan orduan erakutsitako mailari eutsi nahi izango diote. Gasteizko Samaniego Eskolaniako kideei jarraipena eman nahirik, Antton Letek 1986an sortu zuen Alaitz abesbatza. Ordutik ibilbide luzea egin dute gazteiztarrak, Euskal Herrian eta nazioarte mailan (Portugalen, Belgikan edota Frantzia) ere kontzertuak emanez. 1993an E. Ibagutxiren "Kantata" izeneko lana estreinatu zuten Georgiako Orkestarekin batera. Nabarmentzekoak dira, era berean, aurtengo martxoan

Antiguako abesbatza lehiaketan eskainitako emanaldia edota "XI. Villa de Autol" lehiaketan, Errioxan, lortutako lehen saria. Euren mailaren adierazgarri, aurki Egea de los Caballeros-en (Zaragoza) izango den Estatu mailako lehiaketarako gonbidapena jaso izana.

Basilio Astulez-ek hiru urte daramatza Alaitz abesbatzaren zuzendaritzan. Gaur egun 16 eta 26 urte bitarteko 45 gaztek osatzen dute taldea. Euren emanaldietan gregorianoa eta musika garaikidea tartekatzen dituzte eta Euskal Herriko folkloari ere arreta berezia eskaintzen diote. Bihar, besteak beste, Marenzio, Parry, Boyd, Brower, Johnson konpositoreen lanak edota Lennon-McCartney-en "When I'm sixty four" eskainiko dituzte. **B**



Gasteizko Alaitz abesbatzakoak Bergaran izango dira zapatuan.

ERAKUSKETAK

► **Jabier Merkaderren ikonoak**, hormako zeramikaren erakusketa domekara arte Kultur Etxean. Ordutegia: 18:00etatik 21:00etara; zapatu eta jaiegunetan

12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

► **BEARTEk Eginen alde** antolatutako erakusketa. Azaroak 18-29. Kultur Etxean.

► **"1898-1998: otros cien años de conquista"**

Komite Internazionalistak taldearen erakusketa Nahikari tabernan.

DEIAK

► **Animen eguna** astelehenean, hilak 16, Osintxun.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91



KORTA-ZAR Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoak
espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txixizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

Gaztaina erreak eta sagar-
doa 19:00etan eta,
21:00etan, afaria Txuringo
jatetxean.

► **Odol ateraldia** eguazte-
nean, azaroak 18, 18:30etan
Seminarioko lokalean.

► **Kapirixok** burdinaren
inguruan dugun ezagutza
zabaltzeko Legazpira egun
osoko irteera iragarri du
azaroaren 29rako. Izen-
ematea azaroaren 20a
baino lehen 943 77 91 58
telefono zenbakian.

► **Ertamerikarako** lagun-
tza: Oscar Romero solidari-
tate batzordeak eta Komite
Internazionalistak taldeak
Banco Guipuzcoanon eta
Euskadiko Kutxan kontu
korronte bana ireki dute.

► **Jaialdi bakeroa** Kafe
tabernan gaur, azaroak 13,
22:00etatik aurrera.

► **EGA ikastaroa** Akulu
euskaltegian, astelehen eta
eguaztenetan, 18:00etatik
20:00etara. 943 76 05 18.

► **Pol-Pol Mendizale**
Taldeak aurtengo denbo-
raldirako eski bonoak sal-
gai jarri ditu. Argibideak:
943 76 48 51.

► **Jubilatuena egun osoko**
irteera Lizarrara azaroa-
ren 29an. Feria ikusi ondo-
ren, bazkaria egingo da
Iratxe hotelean. Izen-ema-
tea (3.900 pezeta)
Jubilatueta. 943 76 21 40.

► **Hitzaldia:** "Oroimena
ulertzeko klabeak" eguazte-
nean, hilak 18, Eskoriatza-
ko Kultur Etxean 18:00etan.
Hizlaria: Elena Iraolagoitia.
Olazar jubilatuen elkarteak
antolatuta.

KINTADAK

► **1951n** jaiotakoen afaria
bihar, zapatua, Antxonin.
Txartelak Antxonin bertan
jaso daitezke 1.500 pezeta-
ren truke. Azken eguna
gaur, eguakitza.

► **1927an** jaiotakoen
anaiarteko eguna domekan.
Hildakoen oroimenezko
meza 12:30etan San Pedron
eta 14:30etan bazkaria
Antxonin.

► **1944an** jaiotakoen afaria
izango da Azpeitxi jatetxe-
an azaroaren 28an.
Aurretik, arratsaldeko
7etan, meza San Pedro
parrokian. Afarirako izen-
ematea 943 76 42 08
(Arantza Aperribai) edo 943
76 23 70 (Sanchez ileapain-
degia) telefonoetan.

► **1938an** jaiotakoen
anaiarteko eguna azaroaren
28an. Usondon taldeko
argazkia aterako da
14:15etan eta jarraian baz-
karia Antxonin. Izen-ema-
tea 943 76 35 17 (Mari
Karmen Leturia), 943 76 15
36 (Mariasun Gardoki)
edota 943 76 24 67 (Jose
Luis Gabilondo) zenbakie-
tan hilaren 23a baino lehen.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Cha cha cha
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

Pequeños guerreros

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

Vor (El ladrón)

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Secuestro
Eguakitza: 22:00.

El hombre que susurraba a los caballos

Zapatua: 19:00, 22:00
Domeka: 19:00, 22:00.
Astelehena: 19:00, 22:00.
Martitzena, ikuslearen
eguna: 19:00, 22:00.

EIBAR. Unzaga

El negociador

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 22:15.

EIBAR. Rialto

Blade

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 22:15.

ELORRIO. Arriola

El hombre que susurraba a los caballos

Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

Pequeños milagros

Eguena, zine-kluba: 20:15.

AZKOITIA. Baztartxo

The Brave

Eguakitza, zine-kluba: 22:00.

El hombre que susurraba a los caballos

Domeka: 16:30, 19:30.
Astelehena: 20:00.

CHA CHA CHA

Zuzendaria: Antonio del Real.

Aktoreak: Eduardo Noriega,
Ana Alvarez, María Adanez,
Jorge Sanz.

Lucia (Ana Alvarez) eta Maria
(Maria Adanez) lagun minak
dira. Dena konpartitzen dute
gauza bat izan ezik: Pablo
(Jorge Sanz), Mariaren mutila
alegia. Luciak, sekretuan, Pa-
blo maite du eta bere lagunari
mutila lapurtzeko Maria beste
norbaitekin maitemintzea lor-
tu beharko du...

PEQUEÑOS GUERREROS

Zuzendaria: Joe Dante.

Aktoreak: Kristen Dunst,
Gregory Smith, Jay Mohr.

Filmean aktoreen lana orde-
nagailuz sortutako imajinekin
tartekatzen da. Jostailuak di-
seinatzen dituzten bi lagunek
Globotech konpainiako presi-
denteari bere proiektuak azal-
duko dizkiote eta hasiera ba-
tean inongo kalterik ez duten
jostailuak gudari beldurga-
rriak bilakatuko dira.

VOR (EL LADRON)

Zuzendaria: Pavel Chujrai.

Aktoreak: Vladimir Mashkov,
Yekaterina Rednikova.

1950eko hamarkadaren hasie-
ran Sobiet Batasunean Katia
izeneko alargun bat Sania be-
re alabarekin bizi da. Tren bi-
dai batean, ofizialez jantzita,
lapurretan ibiltzen den gizon
bat ezagutu eta berarekin
maiteminduko da Katia. Sania
ere piskanaka-piskanaka bere
amaren laguna onartzen hasi-
ko da baina Tolianek ez die
lapurretei lagako...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

AGOITZ

Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47

GISASOLA

BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8

Tf.: 943 76 27 70

BERGARA

ileapaindegia

eder gela

—disdira—

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55

Deba Garaiko eskualde ospitaleak antolatuta, "Larrialdietako V. jardunaldiak" izatekoak ziren gaur, eguakitza, Arrasateko Aita Menni ospitalean. Bertan, Euskal Autonomi Elkarteke 250 profesional inguru ziren biltzekoak. Iñaki Agiriano mediku bergararrak 17 urte daramatza larrialdietan lanean eta gaur egun Deba Garaiko eskualde ospitalean larrialdi zerbitzuko arduraduna dugu.

G. Zein da jardunaldi hauen helburua?


E. Ekalmek (Euskal Komunitate Autonomoko larrialdietako medikuntza elkartek) jardunaldiak antolatzen dituen bosgarren aldia da eta euren helburua gure inguruko problematika aztertzea da. Aurten, ospitaleen arteko garraioa izango da jardunaldien ardatz nagusia, nahiz eta bestelako gai batzuk ere aztertuko diren. Eskualdetako ospitale txikiok arazoak dauzkagu larrialdi batzuekin ospital nagusietako zaintze intentsiboetako unitateetara bidaltzeko orduan. Adibidez, bihotzekoak, gurean estabilizatzen dira, baina kasu horiek modu berezian bidali behar ditugu Gasteizera, UVI mobil batean normalean. Garraioarena oso gai garrantzitsua da guretzat, ospitale txikiok kezka nagusietako bat dela esango nuke.

G. Zela hobetu daiteke garraio hori?

E. Lehenbizi, guztion artean protokolo bat finkatu beharra daukagu, garraio-mota bereziak, UVI mobilak zein kasutan erabili behar diren zehaztu. Normalean, unitate horiek Gasteizen egoten dira eta larrialdietako lurralde unitatea garen aldetik, eskatu egiten ditugu

IÑAKI AGIRIANO
Medikua

"Ospitale txikietakoa larrialdi zerbitzuen kezka nagusietakoa garraioarena da"



"Ospitalerako lehen trasladoo profesionalen esku egon beharko litzateke".

behar izanez gero. Dena den, ez dago guztiz zehaztua zelako kasuetan erabili behar diren eta batzuetan nola edo hala ibiltzen dira. Guztion artean protokolo bat finkatzea aurrerapausu handia izango litzateke.

G. Garraioarekin jarraituz, zela baloratzen duzu Gurutze Gorriaren edo DYArekin hasierako trasladoo?

"Europako hainbat herrialdetan, larrialdiena espezialitatea da eta gure helburua hemen ere onarpen hori lortzea da"

E. Traslado hori profesionalen esku egon beharko litzateke nire ustez, oraindik ere hori urrun ikusten dudana arren. Gehienetan oso jende gaztea, boluntarioak edota ordezkoko zerbitzu soziala egiten ari direnak ibiltzen dira horretan eta hobeto gertatutako jendea beharrezkoa litzateke. Hala ere, egiten duten lana aitortu egiten behar zaie, nahikoa egiten dute, lan oso gogorra da egiten dutena.

G. Zuen beste aldarrikapenetako bat larrialdiak espezialitate bihurtzea da.

E. Europako hainbat herrialdetan larrialdiena espezialitatea da eta gure helburuetako bat hemen ere onarpen hori lortzea da. Nahiz eta ospitale bakoitzak bere espezialitateak izan, gurera traumatismo ugariekin heltzen direnak adibidez, ez dira inoren konpetentzia, larrialdietako medikuarenak dira. Denerako egon behar gara prest, 20. pisutik bere burua bota edota kamioi batek harrapatu duena hartzeko. Lan estresagarria da batzuetan, baina baditu bere konpetentzia. Gure ospitalean zortzi lagun ari gara lanean larrialdietako zerbitzuan eta hobetu beharrekoen artean larrialdiena espezialitate bihurtzea eta formaziorako kurtso berezien antolaketak aipatuko nituzke.

G. Estatua eta Europarekin konparatuz, EAEko larrialdi zerbitzua zein egoeratan dago?

E. Madril eta Bartzelonan bezala, Euskal Autonomi Elkartearen punta-puntako zerbitzua eskaintzen da eta poliki-poliki bagoaz Europakoarekin parekatzen. Europan karrera amaitu ondoren larrialdi espezialitatea egiteko aukera dago eta hemen oraindik ez dugu lortu. Badago zer egina. B

Euskararen normalizaziorako akordioaren hilabetea antolatuko da

Hainbat ekitaldi bultzatuko dira azaro amaieratik aurrera

"XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari", Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak bultzatu duen kanpaina aurkeztu zuen Bergarako herri batzordeak eguaztenean.

Batzorde honetan Kontseiluko partaide diren erakunde, talde eta elkarteetako ordezkariak daude: Akulu AEK, Aranzadi Ikastola, EHE, Jardun, Mariaren Lagundia ikastola eta Udal Euskaltegiko langileak. Horretaz gain, San Martin ikastetxeko eta Udaleko Euskara Zerbitzuko ordezkariak ere badaude. Halere, batzordeko kideek eguaztenean prentsaurrekoan adierazi zuten, herriko edozein talde edo elkarteri ateak irekita ditu batzordeak.

Kontseilua Euskal Herri mailan euskalgintzan ari diren 54 erakundek sortu duten elkargunea da. Indar sozial nabarmena biltzen du: 5.000 langile, 100.000 bazkide eta 50.000 milioi pezeta-kon dimentsio ekonomikoa.

Euskararen normalizazioa bizkortzeko akordio zabala

Kanpaina honekin Kontseiluak lortu nahi duena zera da: batetik, euskalgintzaren barne-kohesioa eta, bestetik, euskararen normalizazioa bizkortzearen aldeko akordio sozial eta politikozabala bultzatu eta gauzatu. Akordio horren aldeko indarrak eta ilusioak



"XXI. Mendeko akordioa: Bai euskarari" kanpainaren berri eman zuten eguaztenean Kontseiluko herri batzordekoek.

biltzen hasteko "XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari" izenburuko kanpaina antolatu du. Honekin, datoren menderako berrirako akordioa abian jartzeko konpromisoak hartu nahi dira.

Akordioaren hilabetea: hainbat ekitaldi Bergaran

Bergaran sortu den herri-batzordearen eginbehar nagusiak lau dira: alde batek, kanpaina bera eta honen helburuak bazter guztietara zabaltzea; bestetik, eragile sozialen (herriko elkarteak, taldeak, langileak...) atxekimendua lortzea, akordio sozial zabala lortu dadin; era berean, akordioaren hilabetea antolatzea eta, azkenik, langile eta en-

presariak lan-ordu beti dagokionsoldata euskararen alde ematea.

Akordioaren hilabetea azaroaren 26an hasi eta abenduaren 26ra arte luzatuko da. Abenduaren 26an, kanpainari amaiera emateko, Donostia, Gasteiz, Iruñea, Bilbo eta Baionako futbol zelaietan, aldi berean, egingo diren jaialdien aurretik, Bergaran hainbat ekitaldi antolatuko dira. Batzuk zehaztuta dituzte: azaroaren 26an, ikastetxetako ikasleen desfilea egingo da; 28an, umeendako jolasak, gaztinarreak eta erromeria izango dira eta 29an, pilota txapelketak, elkarte gastronomikoen arteko baba-lehiaketa, herri bazkaria, kalejira, Bai euskarari kanpaiko anagrama erraldoia margotzea...

Zehaztuta dituzten ekitaldi guztiak azaroko azken asteburuan pilatu dituzte, baina abenduan zehar beste ekitaldi batzuk antolatzeko asmotan dabiltza herri batzordeko kideak. Gazteentzako herri afaria eta rock kontzertua aipatu zituzten eguazteneko prentsaurrekoan. Halere, herritarren aportazioak jasotzeko prest daude.

Bestalde, esan dezagun, sindikatuetako ordezkariekin eta enpresariekin harremanetan izan direla herri-batzordekoak. Euskararen alde ordubeteri dagokion soldata ematea eskatu zaie langileei eta enpresariei, baina hauteskunde sindikaletan buru-belarri murgilduta daudela-eta, urtarilerara arte atzeratu dute kontua. B



Artekalea 6ko lehen pisuko balkoia jo zuen kamioiak astelehen goizean.

Artekalea oinezkoendako bakarrik nahi dute bizilagunek

Kamioi batek balkoi bat jo zuen astelehenean

Artekaleko bizilagunak kalea trafikoari itxi eta oinezkoendako bakarrik erabiltzea eskatuko diote Udalari. Joan zen astelehenean bertako dendari eta bizilagunak eskaera egiteko sinadurak biltzen zebiltzanean kamioi batek Artekale 6ko lehen pisuko balkoia jo eta puskatu egin zuen. Kasualitate hutsa izan bazen ere, eskaria Udalean aurkezteko tramiteak azkartzen hasi dira bizilagunak.

Hondakinak batzeko kontenedoreak alde batetik bestera eramaten dituen kamioi batek jo zuen balkoia eta oso-osorik eraman ez bazuen ere, balkoi erdia puskatu zuen. Kamioiak balkoia jo ondoren, Rementeria altzari dendarenaurrekin txoke egin zuen.

Artekaleko bizilagunak diote kaleak espaloi txikiak dituela eta trafikoak dabilenez, kalean ibiltzea arriskutsua dela; bestalde, oinez-

koen gune bihurtuz gero, merkataritza jarduera bultzatuko lirakeela eta, ondorioz, kaleko dendetan jende gehiago ibiliko litzatekeela diote.

Obrak direla eta, Artekalea trafikora sarri itxi da azkenaldian eta Barrenkaletik behera desbideratu izan da trafikoak. Barrenkalea oinezkoendako gune bihurtzea aztertzen ibili izan da Udala, baina kontu hori, oraingoz, geldidago. **B**

Eibar-Gasteiz nondik pasatuko den ikusteko ibilaldia

Eibar-Gasteiz autopista Bergarako udalerrian nondik pasatuko den gertutik ezagutzeko ibilaldia antolatu du Gatzaga/Landa Proposamenaren Aldeko Taldeak zapaturako. Irteera, goizeko 9etan plazan.

Eskaileteran arranparik ez

Oztopo arkitektonikoak kentzeko herriko hainbat tokitan obrak egingo dituztela aurreratu genuen joan zen asteko BERRIGARAN. Telesforo Aranzadin, Irala kalera igotzeko eskaileteran, ez dute arranparik jarriko joan zen astean kontrakoa aipatu arren. Lanok, Zaiatzko eta Gantxegi mertzeriaren aurrealdean egingo dituzte. Argazkian agertzen diren koska edo eskailetratxo horiek ekiditeko arranja egingo dute.



Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

LONBIDE OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA

☎ 943 76 10 57



ARREGI

Eraikuntza
materialeak

Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tf. 943 76 27 93

Manifestazio jendetsua Etxaniz preso askatzea exijituz

Ideologia ezberdineko jendeak hartu zuen parte

Jose Mari Etxaniz Askatu Plataformaren deiari erantzunez, manifestazio jendetsua egin zen joan zen zapatuan herriko kaleetan zehar.

Manifestazioan ez zen inolako lelorik oihukatu eta normaltasun osoz egin zen. Bertan, bi pankarta besterik ez ziren izan: manifestazioa zabaltzen zuena, "Etxaniz askatu. Legea bete dezatela" zioena, bata, eta manifestazioaren erdialdean zihoana, "Jose Mari Etxera. Los gestos deben ser otros" leloa zuena, bestea.

Plataformaren deiari erantzunez, herriko indar politiko eta sindikatu nagusietako ordezkariak bildu ziren zapatuko manifestazioan. Hauekin batera, beste hainbat talde, elkarte eta erakundetako ordezkariak eta ideologia eta adin askotako herritarrak. Victoriano Gallastegi alkateak eta Imanol Bolinaga alkate ohiak ere parte hartu zuten eta hauekin batera HB, EAJ eta EAKo zinegotziak. Bertan izaterik izan ez zuena, ostera, Jose Luis Elkoro alkate izandakoa eta gaur egun Martutenen espetxeratua dagoena.

Manifestazioa eguerdiko 12etan hasi zen San Martin plazan eta herriko kale nagusiak zeharkatu ondoren, abiatu zen toki berean amaitu zen 12:30ak inguruan. Bukaeran, Iñaki Ibase plataformako kideak manifestu bat irakurri zuen eta, bertaratutakoen txaloen artean, bukatutzat eman zitzaion manifestazioari.

Jose Mari Etxaniz Askatu Plataformako kideek manifestazioaren balorazio positiboa egin dute eta eskerrak eman nahi dizkiete bertan parte hartu zutenei. Preso beragararren familiarteko-

ek ere eskerrak eman nahi dizkiete zapatuan manifestazioan parte hartu zuten guztiei.

Bestalde, aurrerantzean, Etxaniz kalean ikusi arte, lanean jarraituko dutela adierazi dute plataformako kideek. Etxaniz askatzea eskatzeko prestatutako txostena Arartekoari, Madrileko herriaren defendatzaileari eta Amnesty International erakundeari eman diote; Eusko Legebiltzarrerara ere eramana dute. Bestalde, Puerto de Santa Mariako kartzela epaitegian errekurtsioa aurkeztua dute. B



Herritar askok hartu zuen parte zapatuko manifestazioan.

Hezkuntzaren inguruan berbetan

San Martin Agirre ikastetxeko gurasoen elkarteak hiru hitzaldi prestatu ditu aurten ere, herriko guraso guztientzat. Hiru hitzaldi izango dira, hirurak Kultur Etxean 18:00etatik aurrera. Lehenengoa, datorren martitzenean, azaroak 17, izango da. Mikel Usabiaga Mondragon Unibertsitateko irakasleak "Telebista, bideoa... kaltegarriak al dira?" gaiari buruz jardungo du.

Erdialdeko Amerikarekin elkartasuna

Mitch hurakanak eragin duen hondamendi larriaren aurrean, Komite Internazionalistak elkartasunerako mugimenduak, kaltetuen alde laguntza jasotzeko kontu korronte bat zabaldu du. Zenbakia Euskadiko Kutxako 3035 0134 40 134 0 0173 8 da.

Diru laguntzak, kaltetutako eskualdeekin lanean diharduten KIko kideen bitartez bidaliko dira, kaltetuengana zuzenean iritsiko direla ziurtatuz.

SUBIJA

Gazteentzako moda

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,

BIOTER produktuak,

haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

Berrigara

343 zenbakia.
1998ko azaroaren 13a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
E.mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketak: Estepan Plazaola, Alex Labaien.
Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elkoroberezar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elempuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Onati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

ERTAMERIKARA LAGUNTZA

Aurreko astean, Mikel Andueza bergararrak Mitch hurakanak Ertamerikan kaltetutako herri, hiri eta biztanleriarantzat diru laguntzak eskatzen zituela jakin genuen. Baita ere, Oscar Romero solidaritate batzordeak kontu korronte bat zabalik zeukala Banco Guipuzcoano-n.

Ikasleen artean sentibera-tasuna piztu, eta solidaritateaz gogoeta egin nahian, gai honetaz hitz egitea eta diru bilketa bat egitea proposatu zuen irakasle talde batek. Biak egin dira, eta ikasle eta irakasleen artean bildutakoa (735.519 pezeta) kontu korronte horretan ingresatu da, Bergarako haur multzo honek eskaini duen laguntza gisa.

Ekintza honetan parte hartu duten guztiak emaitzen berri eman nahi diegu, eta bide batez euren laguntza eskertu.

Aranzadi Ikastola

AUTOPISTARIK EZ!

Eibar-Gasteiz autopistaren gure udalerriko trazaketa eza-

gutzeko mendi ibilaldia anto-latu dugu. Datorren igandean, hilak 15, goizeko 9etan Bergarako plazatik irtengo den mar-txa honekin autopista eraso-kor honen tokian-tokiko era-gina ezagutu eta ezagutarazi nahi dugu.

Hauteskunde garaitik hona gauza handirik entzun edo irakurri ez badugu ere, gaur egungo egoera honako hau da: autopista osatzen duten 3 zatiak onartuta daude. Lehenengo zatiko (Maltzaga-Hondartza) lur desjabetze lana aurrera doa eta guztira 61 lur-zati desberdin desjabetuko dituzte gure udalerrian. Urtarrierako obrak martxan hasiko zirela iragarri bazuten ere, Antton Jaime Errepideetako Diputatuak esan duenez, obrak apirilera arte atzeratuko dira.

Autopista hau eraikitzeko arazorik handiena finantzia-zioarena da. Ez dute dirurik. Autopista hau egiteko Bilbo-Behobia autopistaren peajea luzatu nahi dute honen irabaziak autopista berrira desbideratuz.

Neurri honek gizarte mailan oso defendatzaile gutxi di-

tu, egin berri den ikerketa zio-ziologiko baten emaitzek argi azaltzen dutenez ia %80 peaje honen aurka dago eta lehen-bailehen liberatzea eskatzen du.

Gure bailarako beharrei erantzungo dien errepide baten alde gaude eta ziur gaude autopistak ez dituela behar hauek asetuko. Horregatik, aurka egoteaz gain, Leintz-Gatzaga/Landako biztanleek landutako proposamenaren alde azaltzen gara, non oinarri bezala gaur egungo errepide sarea hartuz hobekuntza sakinak planteatzen dituzten.

Gure bailarako trafiko arazoak konpontzeaz gain, herrien arteko lotura bultzatzen du proposamen honek. Eta gure errepide sarea dohainekoa izan behar da, ez peaje-duna.

Gatzaga-Landa proposa-mena 6 aldiz merkeagoa da, ingurugiroari askoz gutxiago erasotzen dio eta gure beharrei erantzuten die.

*Gatzaga/Landa
Proposamenaren
Aldeko Taldea*

tira biraka: bittor rodriguez



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Ze iritzi duzu Ertamerikakoaren moduko hondamendiak direla-eta egiten diren telemaratoien gainean?



Maria Caballero

Ondo daude, ikusleen artean arazoaren berri emateko eta laguntza lortzeko ideia ona dela uste dut. Beharra dutenentzat laguntza handiak lortzen dira.




M. Luisa Agirrezabal

Ondo iruditzen zaizkit, beharra duten herrialdeetarako laguntza lortzeko modu egokia izaten delako. Telebisten promozioa bigarren mailan geratzen da.



Pedro Maria Marin

Idea ona dela iruditzen zait, telebistak duen gauza on bakarretakoa laguntzak lortzeko gaitasuna da.




Santi Iñarra

Egia esan, sekula ez dut ikusi horrelako saiorik. Dirua batzen baldin badute gaizki ez daude, horri eman behar zaio lehentasuna, dudarik gabe.



Laura Perez

Ondo daude, baina hori ez litzateke momentu jakinetan bakarrik egin behar, laguntza beharra aspalditik dutelako. Gobernuak ere zeresana badute.



Jabier Iñarra

Ondo daudela uste dut, oro har, jarraitzen ditut saio horiek eta uste dut jendearen erantzuna oso ona izaten dela, laguntza handia lortzen da.

Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Aste honetan dei bat baino gehiago jaso dugu barianteko irteeran sortzen den ataskoaren inguruan. Luis Larrañagak, esate baterako, goizean, arratsaldeko lehen orduan edota 6-8ak bitartean Beheko Estazioaren inguruan biltzen den kotxe mordoari soluzio bat emateko ordua dela adierazi digu telefonoz. Lanerakoan eta lanetik bueltan denbora dexente eta pazientzia gehiago galtzen dela inguru horretan eta Ertzaintzak edota Udaltzaingoak badutela arazoa konpontzeko zeregina diosku, semaforoak beste ordu batzutaerako direla. Hilabateak dira arazoa jasaten eta dagokionari soluzioa eskatzen dio Luisek.

■ ikuspuntua: **fermin lazcano**

PSOErekin ezetz...

Dantzan dihardute komunikabideak eta politikaren aztertzaileak Eusko Jaurlaritzaren osaketa dela eta. Eta hauxe galdera nagusia: EAJ eta EAK osatutako Jaurlaritza egingo da Ezker Abertzalearen laguntzaz ala PSOE ere sartuko ote da EHkoak baztertuz? Garbiago, Jaurlaritza abertzalea izango da ala integratua? Jende askok darabilen lojikaren arabera, egokiena Euskal Herriko bi sektore nagusiak (abertzalea eta ez abertzalea) integratzea izango litzateke eta PSOErekin balizko Jaurlaritzari "integrazioaren aukera" deritzote.

Zer da integrazioa? Dirudienaren aurka ez



dauka zertan zentzu positiboa eduki behar. Guztia, azterpuntuaren arabera dago. Zeren Euskal Herria modu askoz integratu daiteke: geografikoki pentsatuta... Ipar eta Hegoaldeak integrazterik badago, baina baita Espainia barruak gehiago txertatu ere: kulturaliki... zergatik integratu behar ditugu Espainiako kultura eta Euskal Herrikoa? Zein geratuko da nagusi? Nola egingo da integrazioa?

Hauteskundeetako emaitzak abertzaleen aldekoak izan dira. Irabazleak abertzaleak izan di-

ra. Beraz, etorkizunean non egon nahi dugun murratu eta gero, gaurtik ipini behar ditugu oinarriak. Etorkizun euskalduna, burujabetasuna gure eskuan egon eta munduaren aurrean geure izatez aurkeztekoa nahi badugu, oinarri abertzaleak behar ditugu.

ETAren su-etenak abertzaleen arteko indar metaketa ekarri du, baina metaketa hori ez da oraindik gelditu: udaberriko hauteskundeak geratzen dira zenbat garen adierazteko. Bitartean, Espainiako gobernuak bereak egin beharko ditu eta maiatzeko argiago egongo da panorama. Beraz, ez dago zertan integrazioaren tranpan jausi. Ondorioa: EHk lagundutako Jaurlaritza abertzalea izango dugu uste baino lehen. Nire ustez behintzat. Kaferik? B

■ asteko menua: **infernukua jatexea**

Rapea amerikar erara



JABI LARRAÑAGA
Infernukua Jatexekoa

OSAGAIK (5 laguntzat)

- 2 kilo rapea
- Oliba olioa
- 2 berakatz ale
- Kipula 1
- Porru erdi
- Azenario 1
- 2 piper txorizero
- 200 gramo ganba
- Irin goilarakada bat
- 600 gramo tomate
- Pipermin apur bat
- Baso bat ardo zuri
- Kopa bat koñak

PRESTAKETA

Saltsa egiteko:

- Lapiko batean olioia eta bi berakatz ale sutan jarri.
- Gorritzen hasten denean, kipula bat, porru erdi eta azenario bat gehitu eta biguntzen hasten direnean, ganben buruak eta azalak bota.
- Guztia ondo nahastu ondoren, bustitako bi piper txorizero eta goilarakada bat irin gehitu eta berriz ere nahastu.
- 600 gramo tomate, pipermin apurtxo bat eta baso bat ardo zuri bota.
- Guztia, ordu erdiz su motelean irekiten eduki eta txinotik pasatu.

Rapea egiteko:

- Rapea ondo garbitu, azala eta hezurak kenduz eta bi zentimetro inguruko xerra borobilak egin.
- Zartagin batean, olioia bero-bero dagoenean rape xerrak bota eta bi minutu inguru eduki, alde bietatik apur bat egin arte.
- Rapea sutatik atera eta lapiko bero batean ipini.
- Koñak kopa batekin flanbeatu eta, ondoren, lehen egin dugun saltsa gainetik bota eta lapikoan bertan su motelean 10 minutuz eduki.
- Mahaira atera aurretik, zuritu ditugun ganben buztanak rapearen gainean jarri.

■ bergarako gordailutik

TORRANO APAIZAREN AUZIA

Imanol Sorondo

Torranotar Juan Fco. San Pedroko apaiz maisua zen, eta bere zerbitzu lanak hauek ziren: jai egunetako sermoia, aitortzak, sakramentuen ospakizunak, hil zorian zeudenei laguntza ematea eta bere ardurari zegozkion beste eginkizun batzuk.

Baina jaun batek eskatu eta San Juan Nepomuzenoren hitzaldia egiteko Balzolatarr Inaziori sermointokia utzi zion 1772.ean. San Pedro bertako beste lau apaiz izan ziren aurka egiten ziotenak; lehendik, Gotzaitegira joanak ziren, Balzola jesuiten nobizio izan zela adieraztera eta emandako eskubiodea kentzeko eskatzera. Ez dezagun ahaztu Erregeak bidali egin zituela jesuitak Estatutik 5 urte lehenago. Torranok ez zien kasurik egin; Gotzaiaren ordezkoa ere bere alde zegoen. Lau apaizek, berriz, auzitegira jo zuten salaketa hauekin: bi orduko sermoia egitea jai egunetan; Karnabaletako festatik jendea kentzeko elizan bederatziruarenak ipintzea; gogaitzearen, besteak errogatibak ospatzen ari zirela berak meza ematea; sermoi batean Amigos del País-ekoak lapurrak zirela esatea; ostatuetara eta joko-etxetara ikuskatzera joatea; auzi asko edukitakoa omen zela; eta beragatik aldendu omen ziren Oxirondoko apaizak.

Torranoren alde hamasei lekuko azaldu ziren eta hauek ziotenez, lau apaizek ez zuten egia esan, Torrano maisuak irain, eraso eta okerkari handienak jaso zituen, bere etxeko atean hildako katu eta beleak ipini zizkioten, irain idatziak atarira bota, balak tirokatu balkoira eta abar. Torranok bere izen ona berreskuratu nahi zuen, lanak oztoporik gabe egin eta kalteen ordainak jaso. Gauza hauek eskatzen zituzten lekukoek ere. B

■ adituen esanetan

Lasterkata ondorena

JOSE JABIER AGIRREZABAL, *masajista*

Behobia-Donostia bezalako korrika proba egin ondoren, ez da komenigarria izaten bapatean antxintxikari lagatzea. Hori bai, entrenamendu lasaiagoak, erritmo suabeagoak, egitea ondo etorriko zaio gorputzari. Elikadurari dagokionez, karrera aurreko egunetako berari eutsiko diogu eta bitamina baxuak dituztenei fruta, barazkiak, fruitu lehorrak edota arraina jatea komeni zaie ondo errekuiperatzeko. Ahal den neurrian behintzat haragia ez jateagomendatzen da.

Karrera amaitu ondoren ona izaten da ur beroko bainu bat hartzea, orduerdi ingurukoa, gorputza erlajatzeko. Lu-

zaketa ariketak egitea ere ezinbestekoa da korrika proba baten aurretik eta ondoren. Luzaketa ariketa ezberdinak daude baina abduktoreak, hanketako muskulu bikiak eta izterrondoei arreta berezia eskeiniko diegu.

Bestalde, gainkargak eta tendinitisa ohizko arazoak izaten dira eta atsedena ondo dator kasu horietan. Arazorik ez izateko ondo entrenatu beharra dago aurretik (hiru bat hilabate lehenago, laupabost egun astero) eta karrera herriko bati buruz ari garenez ez dago munduko errekorra egitera joan beharrik, disfrutatzeke karrera bat izan behar da. B



Zaharren astea Mizpirualden

Urtero moduan, Mizpirualdeko bizilagunei aisiadirako jarduerak eskaini nahirik, astean zehar hainbat ekitaldi antolatu dira zaharren egoitzan: karta eta joku txapelketak, dantza saioak,

musika emanaldiak, antzerkia eta bestelakoekin egoitza ohi baino animatuago izan da astean zehar. Eguaztenean, esaterako, arratsaldeko txokolotadaren ostean, **Moises Azpiazu** dantza taldearen saioa izan zen eta **Aritzetak** ere emanaldia eskaini zuen (argazkian). Astebukaeran emango zaio amaiera zaharren asteari. Zapaturako **Extremadurako Kultur Zentruaren emanaldia** iragarri da; domekan, **sari banaketa eta Xamatzen aktuazioa** izango dira.



AZKIAK: JUAN IDIGORAS

Merezitako omenaldia

*San Pedro eta Santa Marinako eliztarrek omenaldi beroa eskaini zieten domekan parrokitako koroan urtetan ibilitako biru kantoreri. San Pedroko 11etako mezan hirurek **Miguel Okina**k egindako erretratu bana eta opariak jaso zituzten. Argazkian, ezkerretik eskumara, **Roman Mujika, Jesus Berroya eta Inazio Madi-nabeitia Fidel Eizagirre** parrokoaren alboan. Bestalde, ondorengo bazkarian Okinari ere, kantore guztien txalo artean, orogarritxo bat eman zioten orain arte omenutako kantore guztien margoak egitegatik.*



1955ean jaiotakoen afaria

Sasoi honetan urte bereko bergararrak biltzeko garaia ei da, **kintada bazkari eta afari mordo bat** izan baitira azkenaldian.

Udazkeneko zapatuak zertxobait girotzeko aitzakiarekin BERRIGARAN mezua bota eta listo, mahai baten inguruan eskola garaiko lagunekin elkartu. **1955. urtean jaiotakoek**, adibidez, urriaren 31n egin zuten afaria Antxoni jatetxean. Aurten 43 urte egiten dituztenak biltzen ziren bigarren aldia zen eta primerako giroa izan ei zuten gau osoan zehar. 50 lagun inguru izan ziren afarian eta datorren urtean errepikatzekotan geratu ziren. Ea hitza betetzen duten!!



KINU

Haur eta gazteen ahozko euskara hobetzeko plana abian abian ikastetxeetan

Bergarako ahozko euskara hobeto erabiltzea da helburua

Haur eta gazteen ahozko euskara hobetzeko plana abian jarriko dute herriko ikastetxeek eta Udaleko Euskara Zerbitzuak egun hauetan. Helburua, euskararen erabilera bultzatzeaz gain, ikasle, irakasle eta gurasoen euskara maila hobetzea da, euskararen kalitatea hobetzea, alegia.

“Emon leikedostazu liburuak?”, “Ekarri leikedot bizikletia?”, “Bihar nere zorionak die” edota “Si nik ez dotsat ezebe esan” bezalako esaldiak sarri entzuten dira haur eta gazteen artean batez ere. Era honetako espresio asko nondik sortu edo asmatu dituzten jakitea zaila da, baina gaztetxoek ahoz aho darabilte eguneroko jardunean eta baita guraso askok ere, gazteek bereziki.

Bertako euskara txarto erabiltzearen arrazoiak ugariak izan daitezke: euskalkia ez baloratu eta lantzea, etxean erreferente onik ez izatea, erderaren interferentziak... Eta, horrek guztiak, ume eta gaztetxoek euskara pobretzea eta traketatea ekarri du.

Asmoen berri eman

Egoera horretaz kezkatuak, herriko ikastetxeetako ordezkariak eta Udaleko Euskara Zerbitzukoek egoera hau gainditzeko herri mailako estrategia bateratua jarriko dute martxan.

Lehenengo fasean, inplikaturako guztiei, hau da, irakasle, ikasle, guraso eta eskolaz kan-



Haur, gaztetxo, guraso eta irakasleen ahozko euskara hobetzea du helburu plan berriak.

pokoei (kirol monitoreak, tabernariak, dendariak...) egin nahi denaren berri emango zaie.

Akats sistematikoen zuzenketa

Bigarrenean, zuzenketa fasean, ahozko zein idatzizko komunikabideetan eredu onak plazaratzen saiatuko dira: BERRIGARAN, esaterako, sail batzuetan Bergarako euskalkia erabiliko da eta gazteentzako irratik-emanekizuna abian jartzeko asmoa dago. Horretaz gain,

akats sistematikoen zuzenketa landuko da. Eskoletan, komiki-kartelen bidez, akatsak agertu eta eredu zuzenak emango zaizkie ikasleei eta irakasleei tutorretza orduetan gaiari buruzko hausnarketa egiten dezaten eskatuko zaie.

Gurasoei, bestalde, aldi bakoitzean zuzendu nahi diren akatsen inguruko informazioa bidaliko zaie etxera, idatziz.

Eskoletatik kanpo, gazteek gehien egiten dituzten akatsen berri eman eta zuzenketa proposatzen duten komikiak jarriko

dira taberna, denda eta abarretan. Azkenik, Bergarako euskara lantzeko eta hobetzeko ikastaroak antolatuko dira.

Kanpaina egun hauetan jarriko da martxan. Lehenengo, kanpainaren nondik-norakoak azaldu eta estrategia honen berri emango zaie gurasoei gutun batean. Ondoren, egiten diren akatsak eta hauen zuzenketa bidaliko zaizkie aldiro gurasoei etxera. Eskoletan ere goian aipatutako jarduerak ipiniko dituzte abian eta gauza bera eskolatik kanpo. B

“Kanpaina egun hauetan jarriko da martxan. Honen nondik-norakoak azaldu eta estrategia honen berri emango zaie gurasoei gutun batean”



Abiadura handiko trenarekin bueltaka

EAEko merkatal ganbarek ibilbide berria proposatu dute

Abiadura Handiko Trenaren inguruko 300 alegazio inguru aurkeztu dira dagoeneko eta astelehenean Euskal Autonomia Elkarteko hiru merkatal ganbarek trazaketa berri bat proposatu zuten prentsaurrean. AHTak zeresan ugari eman du azken hamarkadan eta enpresariak plazaratutako ibilbideak piztu egin du berriz ere polemika Euskal Herriko komunikabideetan.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako merkatal ganbarek Abiadura Handiko Trenari buruzko proposamen berria aurkeztu zuten astelehenean prentsaurrean. Orain arteko "Euskal Y" izeneko proiektuaren ordeztu, L itxura duen ibilbide berria proposatu dute ganbarek, Donostia, Bilbo eta Gasteizen arteko lotura linealaren aldeko apostua eginez. Oraingoan, merkatal ganbaren proposamena baino ez da; hala ere, hiru ganbaretako agintariak Madrilen, Gasteizen eta hiru diputazioetan aurkeztu dute beraien asmoa eta harrera ona jaso dutela adierazi zuten asteleheneko prentsaurrean.

Fermin Mendizabal Mayceko zuzendaria eta Gipuzkoako merkatal ganbarako presidentea dugu; berak azaldu digunez, "Euskal Yaren proiektua alegazio epean dago orain eta proiektua hobetu nahirik aholkularitza enpresa bati lan bat agindu genion. Merkatal ganbaren zeregin nagusia lurraldeko interes ekonomikoak defenditzea da eta azpiegiturak zeresan handia dauka-

te horretan. Helburua, Europar Batasunak finantzaturako dituen hamalau obra handien artean abiadura handiko trenaren proiektua egotea litzateke, ardatz atlantikoak jadanik martxan dagoen ardatz mediterraniarrekin lehiatzeko aukera izan dezan. Fomento Ministeritzan eta Garraio Kontseilaritzan begi onez ikusi dute proiektua eta orain politikoez izango dute azken hitza". Merkatal ganbarek aurreratu zuten, kostuaren zati bat ordaintzeko prest dira.

Lehen kalkuluen arabera, ibilbide berria "Euskal Y"-a baino %10-20 garestiagoa izango litzateke. Hala ere, Mendizabalek argitu digunez, "inbertsio kostua izan behar da kontutan alde batetik baina bestetik, esplotazio eta mantentimendu kostua ere bai. Esplotazioari dagokionez, Bilbora joango litzatekeen, erabiltzaile gehiago izango litzateke trenak eta zerbitzua mantentzea merkeago izango litzateke tren gutxiago behar izango lirateke eta. Urtean 1.000 milioi aurreztuko lirateke azpiegituraren mantentimenduan". Proiektu honen

bultzatzaileen esanetan, proiektu berriak 6 tren beharko litzateke eta Euskal Y-aren arabera, berriz, 17.

Lotura lineala


Esan bezala, nobedaderik garrantzitsuenetakoa azken hamarkadan zeresan ugari eman duen "Euskal Y" famatuaren trazatua litzateke. Euskal Autonomi Elkarteko enpresariak elkarrekin landutako proiektuan trazaketak L itxura hartzen du Donostia, Bilbo eta Gasteiz eta Donostia arteko lotura zuzena eta Elorrio-Angiozar ardatza saihestuz. Trazatu berriarekin gure bai-larrik galdu ala irabazten ote duen galderatu diogu Mendizabali: "lehenengo proiektuan ere ez zen jasotzen geltokirik hemen eta uste dut hori ezinezkoa dela abiadura handiko tren bat izan nahi badugu, bestela ez litzateke abiadura handiko tren bat izango. Dena den, ikuspuntu ekologista batetik gure proiektua hobea dela uste dut, ibilbi-

IBILBIDE LUZEKO TRENA

1986. urtean, Espainia Europar Batasuneko kide izatera pasatu zenean, Europako abiadura handiko trenbide sarea bultzatzea erabaki zen. 1988an "Euskal Y"-aren aurreproiektua eta azterketa osagarriak adjudikatu ziren eta 1994an "Euskal Y"-aren proiektuaren berri emateko informazio faseari hasiera eman zitzaion (proiektuak dagoeneko 1.700 milioi pezetako inbertsioa izan du). Jaurlaritzak aztertutako hiru aukeretako baten aldeko apostua egin zuen joan zen urtean. Hala ere, proiektuaren kontrako iritziak entzun dira hasiera-hasieratik: 1993an AHTaren kontrako asanblada sortu zen, AHTak lurralde eredu zentralizatua eta desorekatua bultzatzen duela salatuz, hiri handien arteko komunikazioari lehentasuna ematen zaiolako eta ez direlako kontutan hartzen inguruneari eragindako kalteak edota herri eta eskualdeak.

Hasiera batean, AHTa Angiozarretik pasatzekoa zen eta Angiozar Bailarako Batzarrik firma bilketari ekin zion trena bertatik pasatu beharrean Epeletik pasatzeko eskatzeko. Orain, gan-

baren proposamen berriaren arabera, trenak ez luke gure bailara ikutuko. Victoriano Gallastegi alkatearen hitzetan, "sorpresa bat izan da niretzat ibilbide berri hau plazaratzea eta aztertu egin beharko dira ondo mahai gainean dauden bi proiektuen alde onak eta kontrako gauzak. Mankomunitate mailan ere beharrezkoa ikusten dut gai honi eustea. Hasiera batean proposamen berria ona izan daiteke Bergararentzat, baina ikusi egin beharko da trenak zer aportatzen duen eta ibilbide guztian izango lukeen eragina. AHTa beharrezkoa ikusten dut eta egingo delakoan nago. Hala ere, bailaretan tarteko azpiegiturak bultzatzea ere garrantzitsua da". Gorka Elortza Angiozarko auzo-alkatearen ustez, "hasiera batean pozgarria da trena gure bailaratik ez pasatzea, batzordeak izan duen kezka nagusienetakoa hori izan baita. Orain, aldiz, beste batzuk izan daitezke kaltetuak eta horrelako azpiegitura baten premia dagoen aztertu beharko da. Hor inbertituko den dirutza premia gehiago duten oraingo azpiegiturak berrizteko bideratu daiteke". B



"Euskal Y-aren proiektua alegazio epean dago orain eta, proiektua hobetu asmoz, gure proposamena aurkeztu dugu. Azpiegiturak hazkunde ekonomikoarekiko eragin zuzena dute"

FERMIN MENDIZABAL

dea motzagoa delako eta zati bat lur azpian doalako, metro baten antzerakoa izango litzateke. Ingurugiroan eragin gutxiago izango luke".

Merkatal ganbaren arabera, L-ak Y-arekiko bidaia denbora murrizketa eka-

rriko luke Gasteiz-Bilbo (12 minutu gutxiago) eta Donostia-Bilbo (11 minutu gutxiago) ibilbideetan. Aldiz, Gasteiz-Donostia betetzeko 5 minutu gehiago behar izango dira proposamen berrian oinarrituta. 250 km./orduko abiadura-

ren arabera egindako kalkuluak dira hauek. Mendizabalen ustez, "Y-ak Bilbo alde batera lagatzen du, bertaraino heltzeko adar bat egin beharra dago eta. Irtenbide berriarekin Bilbori duen garrantzia ematen zaio. Donostian, berriz, herri barruraino helduko litzateke eta, ostera, Astigarragaraino, Euskal Y-aren proiektuan jasotako moduan". Landutako proiektuaren arabera, trena lur azpitik sartuko litzateke hiriburuz guztietan eta horrela geltoki intermodalak (garraiobide ezberdinak jasoko litzuzketenak) eraikitzeko aukera jasotzen da. L-aren proiektuak tuneletan eremu handia hartzen duenez, ingurugiroarekiko eragina txikiagoa litzatekeela aurreratu dute bultzatzaileek.

Kontrako iritziak

Ibilbide berri honek Euskal Y-ak baino 40 kilometro gutxiago izango li-

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak. Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...


Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23



Matxiategi
Elektragintza
C.B.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Fleming 5 ☎ 943 76 19 94



tuzke, 135 kilometroko trenbidearekin hiru hiriburuak lotuz. Euskal Y-an baino 35 kilometro gehiago joango liraterke tunelpean, 90 kilometro guztira.

Ingurugiroan izango zuen eragina izan da merkatal ganbarek euren proiektua defenditzeko erabilitako beste argumentuetako bat. Datozen hileotan politikoez izango dute azken erabakia. Badirudi Eusko Jaurlaritzak Y-aren aldeko apostua egiten jarraitzen duela. Garraio Kontseilaritzako iturriek "Euskal Y"-aren trazaketa egokiena dela argitu zuten martitzenean eta AHTaren bultzatzaile nagusienetakoa izan zen Maturana kontseilari ohiak hankaz gora jarri du merkatal ganbaren proposamena; "mapa gainean marrazkiak egitea oso erreza da. Trazaketaren analisi sakon bat botatzen da faltan eta, trazatua ondo zehazteke, ez dauka zentzurik ibilbidearen inguruko zifrak kaleratzeak. Merkatal ganbaren proposamenari ez nioke alegazio izaera ere emango". Gauzak horrela, benduaren 15-17a bitartean Gasteizen egin abeharreko kongresua erabakigarria izan daiteke AHTaren etorkizunerako. B



Argazkian, irabazleak (Jesus Frago falta da) eta Julen Narbaiza, Bedelkarreko lehendakaria

BEDELKARen lehiaketan honako bost hauek jaso zuten 20.000 pezetako txartel bana, BEDELKAREko denda, jatetxe eta tabernetan gastatzeko:

Naroa Bernardo
 Maria Luisa San Vicente
 Beñat Etxezarreta
 Jesus Frago
 eta Maria Jesus Marauri.

Zorionak denoi!





Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

Domekan barruan

09:30: Usoa-Txipiron	Amilotx
10:30: Amilotx-Igandekoak	Txipiron
16:00: Ortzi-Errotagain	Azpeitxi
17:00: Pagomendi-Azpeitxi Jatetxea	OH Zerezos
18:00: Jauja OH Zerezos-Bildurbarek	Shaktale
19:00: A Ze Flaxa Etxagi-Shaktale	Canalejas
20:00: Bar Canalejas-Mongatxurrak	A Ze Flaxa

Domekan kanpoan

10:30: Arbe Kirolak-Guadalest	Etengabe
11:30: Komando Piperrak-Etengabe	Ufala
12:30: Pinturas Bergara-Ufala	K. Piperrak
16:00: Sirimiri Eri-Bayer	Xurruapak
17:00: Xurruapak-Mo(ko)lotov	Zubixaurre
18:00: Zubixaurre Punk-Ezinleike	La Juve

argi!

Batzordeak partidu bateko zigorra barkatu dio Jose Mari Romerori

Errotagain taldeko Jose Mari Romerok joan zen astean Antolaketa Batzordeak ezarri zion bi partiduko zigorra errekurritu egin du. Horren ondorioz, batzordeak partidu bat barkatzea erabaki du eta, beraz, partidu bakarra pasatu beharko du jokatu ezinda Errotagain taldeko jokariari.

Puntualitate eske

Joan zen astean antolaketa batzordeak arbitraia seriotasuna eskatu zuen bezala, oraingoan, arbitratzerako eta partiduei hasiera emateko orduan puntualitatea izateko eskatu du.

jokoz kanpo



**IGOR
ORUESAGASTI
Sirimiri Eri**

G. Nolako emaitzak lortu dituzue orain arte?
E. Inoiz baino hobeto gabiltza. Bost partidutatik lau irabazi eta bakarra berdindu dugu saikapenean bigarren gaude.
G. Zenbat urte txapelketan?
E. Bost edo sei. Hasieran ERI izenarekin jokatzeko genuen, hau da, Elosu Republica Independiente; duela bi denboraldi tabernaren izena gehitu genion.

G. Nola bukatzea espero duzu?
E. Lehen mailara igotzeko jokatzeko diren partiduetan izango gara uste dut baina igotzea nahiko zail ikusten dut.

G. 1etik 10era puntua ezazu zure taldea?
E. Igande goizetan, 5. Gainontzekoetan, 8. Giro aldetik, 10. **G.** Taldeko jokalaririk bat?

E. Joseba Larrañaga. Azken bi partiduetan zazpi gol sartu ditu.

G. Ostikadak jaso ala eman?

E. Normalean eman.

G. Futboleko izango da euskal selekzioerik?

E. Bai, baina lehendabizi pilotan sortuko da eta, gero, futboleko.

gora eta behera



Gol ugari azken partiduetan

Joan zen asteko jardunaldian gol ugari ikusteko aukera izan zen. Artusamak taldekoek lortu zuten gol kopuru handiena, 15 hain zuzen. Amozkibar taldekoek 8 lortu zituzten eta Azpeitxi Jatetxeak, Tom Cat Argandolas eta FACek, berriz, 6.



Punturik gabeko taldeak

SLP taldeak ezin izan zuen oraingoan ere partidua aurrera atera eta azkenaldian ez du partidurik irabaztea lortu. Ondorioz, ezin izan du puntu bakarra lortu jokatu dituen sei partiduetan. Horretaz gain, Antolaketa Batzordeak 3 puntu kendu zizkion partidu batean jaso zuten zigorratik. Zubixaurre Punk taldeak izan ezik, taularen azpi aldean dabilen gainontzekoek puntuak gehitzea lortu dute.

emaitzak

Agirrebeña Jatetxea-Ari Ari	4-0
Jauja OH Zerezos-Shaktale	3-1
Pagomendi-Mongatxurrak	3-1
Irubide Jatetxea-Ion Autoak	0-5
A Ze Flaxa Etxagi-Errotagain	2-2
Bar Canalejas-Azpeitxi Jatetxea	1-6
Tom Cat Argandolas-Agiñaspi	6-1
Buya-HHH	0-3
Uve Bikoitza-Moskis	5-1
Jakina Patxaran Team-Matxakategi	3-3
Patatus-Amozkibar	1-8
FAC-La Juve	6-1
SLP-Artusamak	8-15
Xurruapak-Mo(ko)lotov	3-0

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. Pagomendi	14	6
2. A Ze Flaxa Etxagi	11	5
3. Errotagain	10	5
4. Azpeitxi Jatetxea	9	5
5. Jauja OH Zerezos	6	4
6. Bar Canalejas	6	5
7. Bildurbarek Opel/Lam	4	4
8. Ortzi	4	5
9. Mongatxurrak	4	5
10. Shaktale	3	5

A multzoa

	P	J
1. FAC	18	7
2. Artusamak	16	6
3. Txipiron	12	6
4. Urrutxurtu	12	6
5. Komando Piperrak	10	6
6. Usoa	9	5
7. La Juve	5	5
8. Ion Autoak	5	7
9. Etengabe	4	5
10. Irubide Jatetxea	3	6
11. SLP	-3	6

B multzoa

	P	J
1. Tom Cat Argandolas	19	7
2. Guadalest	16	6
3. Uve Bikoitza	15	7
4. Arbe Kirolak	13	6
5. HHH	13	7
6. Moskis	12	7
7. Agiñaspi	7	7
8. Ufala	6	6
9. Pinturas Bergara	5	6
10. Buya	4	7
11. Amozkibar	3	7
12. Patatus	1	7

C multzoa

	P	J
1. Xurruapak	18	6
2. Sirimiri Eri	13	6
3. Ezinleike	13	6
4. Jakina Patxaran Team	13	7
5. Agirrebeña Jatetxea	13	7
6. Bayer	12	6
7. Mo(ko)lotov	6	5
8. Ari Ari	6	7
9. Matxakategi	4	7
10. Amilotx	3	6
11. Igandekoak	1	5
12. Zubixaurre Punk	0	5



Goialdean geroz eta tinkoago

Nietoren mutilak lan ona egiten ari dira eta sailkapenaren goialdean ditugu. Anaitasunaren kontrako partidu gogorrean, 3-2ko emaitza lortu zuten zapatuan. Azkoitiarrak aurreratu ziren BAINA lehen zatia bana amaitu zuten. Aipagarria, lehen zati honetan Bergarako atezainak, Areitiok, geratu zuten penaltia.

Bigarren zatian Bergarako markagailuan aurreratu arren, Anaitasunak berdintzea lortu zuen. Halere, Nietorenek asmatu zuten eta hirugarrena egin zuten; partiduko azken minutuak zirrargarriak izan ziren eta Anaitasunak ia berdintzea lortu zuen. Une honetan, Bergara 2. postuan dago Aloñaren atzetik eta Anaitasuna, berriz, 6.ean.



Ozta-ozta lortutako garaipena

Eskubaloitako taldeko jubenil mailakoak, Eskoriatzako Almen taldearen kontra jokatu zuten joan zen asteburuan. Josetxoren mutilek partiduan zehar alde nabarmena izan arren, poliki-poliki huts egindako aukeren ondorioz, aldea galtzen joan ziren eta azkenean arte, ez zuten partidua erabakitzerik izan. 23-20ko emaitzarekin amaitu zen partidua.

Asteburuan, partidu erabakigarria dute jubenilek. Irabaziz gero, bigarren fasea jokatzeko sailkatuko lirarteke; beti ere eurekin parekatuta dauden taldeen emaitzak kontutan izan beharko badira ere. Une honetan bergararrak laugarren postuan daude eta asteburuan Oñatiko taldearen aurka jokatu dute.



Arazorik gabeko partidua

Saskibaloiko kadete mutilek Irurak Oñatiko taldearen kontra jardun zuten joan zen astean eta 74-40 aldeko emaitza lortu zuten. Hasieran, jokalaria motel xamar kantxaratu ziren arren, berehala piztu ziren eta lehen zatian 16 puntuko aldea hartu zuten.

David Bouzas entrenatzaileak ez zuen holako zorterik izan, izan ere, bigarren zatian epaileak kalera bidali zuten. Epaileak bi zigor ezarri zizkion Davidi eta kalera joan behar izan zuen. Dena dela, zigor horiek ez dute hurrengo partiduan eraginik izango. Kadeteak sailkapeneko goi aldean daude une honetan. Asteburuan, Irungoen kontra jokatu dute, eta, dirudenez, partidu gogorra izango da.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Eibar

Jubenil maila. Zapatua. 17:00

Bergara-Antzuola

2. kadete maila. Domeka. 10:00

Bergara-Anaitasuna

Lehen kadete maila. Domeka. 11:30
Hiru partiduak Ipintzan

PILOTA

Bergara-Eskoriatza. Kadeteak
Bergara-Azkoitia. Jubenilak
Bergara-Aretxabaleta. Juniorrak
Bergara-Aretxabaleta. Seniorrak
Eguakitza. 19.30. Pilotalekua

BAQUE TXAPELKETA

Final erdiki

Domingez-Igor Agirre

Azagirre-Jauregi

Martizena. 19:00. Pilotalekua

SASKIBALOA

Bolsos Bergara-Hispania

Senior maila

Zapatua. 19:00. Kiroldegia

Bergara-BKL

Jubenil mutilak

Zapatua 12:15. Kiroldegia

Bergara-Inter Intxaurren

Jubenil neskak

Zapatua. 16:00. M. Lagundia

Bergara-Amigos Baloncesto

Kadete mutilak

Domeka 10:30. M. Lagundia

Bergara-Almen

Kadete neskak

Domeka 12:15. M. Lagundia

ESKUBALOA

Iraundi Bergara-Urola

Senior maila. Domeka. 12:15

Bergara-Urola

Kadete mutilak. Zapatua. 16:15

Bergara Goierri

Jubenil neskak. Zapatua 17:30

Hirurak Kiroldegian

PALA TXAPELKETA

Osintxun

15:30: Txurruka eta Manzanedo
Mendi eta Boyina

16:15: Lopez eta Jorge
Alberdi eta Agirrebeña

17:00: Acedo eta Acedo
Rico anaiak

17:45: Mancebo eta Urigoitia
Arregi eta Eñaut

18:30: Etxaniz eta Irureta
Alkorta eta Juaristi

19:15: Txurruka eta Etxeberria
Martinez eta Balzategi

MAITE TOLEDO / Korrikalaria

"Lehen aldiz hartu dut parte Behobian"

Behobia-Donostia lasterketan izan da Bergara eta Antzuolako beste hiru emakumerekin batera. Hauen artean, Amaia Agirre bergararra izan zen denbora onena egitea lortu zuena. Maite horien artean bigarren gelditu zen.

G. Zenbagarren urtea Behobia-Donostia lasterketa korritzen?

E. Lehendabiziko aldia izan da. Orain arte lasterketara ikusle bezala inguratzen nintzen. Giro ona izaten da eta begira zauden bitartean korrika egiteko gogoia pizten zaizu. Horrela, aurtan bertan izatea erabaki nuen.

G. Entrenamendu saio asko egin dituzu?

E. Gertatu beharra dago lasterketa gogorra baita. Nik beste kirol batzuk ere egin ditut, antxintxika oso gutxi ibili banaiz ere. Irailetik aurrera, serioago prestatzen hasi nintzen. Astean hiru egunetan, hasieran 6, 8 kilometro egiten nituen. Poliki-poliki kilometro gehiago egiten dituzu entrenamenduaren poderioz.

G. Nola amaitu zenuen ibilbidea?

E. Lehendabiziko aldia izan da eta ardura bakarra lasterketa amaitzea izan zen. Ez nuen denbora jakinik egiteko asmorik. Poliki-poliki abiatu ginen eta nekatuta amaitu arren, gustora sentitu nintzen.

G. Datorren urtean zer?

E. Errepikatzeko asmotan nago.

Hurrengoan, denbora hobetzen saiatuko naiz.

G. Giro bikaina izan zen ez?

E. Gure inguruko korrikalari asko moztarotuta zeuden. Pentsa, antxintxika nindoala, barreari ezin eutsiz, bareak heldu zidan.



96 bergarar eta 23 antzuolar

Behobia-Donostia lasterketan

laz baino bergarar gutxiago eta antzuolar gehiago

Joan zen urtean 120 antxintxikarari bergarar izan ziren lasterketan parte hartzera animatu zirenak eta antzuolarren artean 15. Aurtun, ostera, bergararren kopuruak behera egin du eta antzuolarrek gogo handiago erakutsi dute.

Sailkapenean, Ion Aranzabal izan da denbora onena egin duena (1:11:45). Aitor Erañak, berriz, joan zen urtean berak egindako marka ia minutu batean jaitsi zuen domekan.



Korrikalari talde bat Maria Cristina ondoko helmugara heltzen.

Emakumezkoei dago kienez eta beti ere antolatzaile lanetan ibili den Fortuna Elkartearen datuen arabera, lau emakumek hartu dute parte. Hauetatik, Bergarako Amaia Agirrek lortu du denbora onena (1.46:28), sailkapen orokorrean 5.150. postua eskuratuz. Emakumezkoetan, Bergara mailan lasterketa amaitu dutenen kopurua mantendu egin da, bai iaz eta bai aurtun hiru izan dira eta; 1996an, berriz, 6 izan ziren.

Bergararren eta antzuolarren sailkapen ez-ofiziala

Iturria: Fortuna elkarte

BERGARA

101	Ion Aranzabal	1:11:45
118	Aitor Eraña	1:12:25
167	Javier Moreno	1:14:04
207	Aitor Rementeria	1:15:10
268	Basilio Aranburu	1:16:35
270	Roberto Zurro	1:16:37
309	Jose Manuel Diaz	1:17:24
578	Ricardo de Goñi	1:21:02
591	Aitor Laskurain	1:21:12
727	Xabier Lijo	1:22:32
771	Aitor Gartzia	1:22:51
873	Aiert Lizarralde	1:23:46
891	Ignacio Alberdi	1:23:57
1.072	Imanol Gartzia	1:25:20
1.191	Xabier Lazkano	1:26:16
1.284	Kote Mentxaka	1:26:52
1.401	Mikel Santos	1:27:37
1.416	F. Antonio Terrazas	1:27:40
1.495	Gorka Mujika	1:28:13
1.640	Joaquin Gonzalez	1:29:01
1.734	Oskar Maiztegi	1:29:33
1.735	Jose Arribas	1:29:34
1.741	J. Mari Gabilondo	1:29:35
1.835	Manu Gorospe	1:29:58
1.920	Xabier Uribesalgo	1:30:32
2.054	Iñaki Olano	1:31:19
2.100	Luis Mari Alberdi	1:31:40
2.130	Iñaki Andueza	1:31:51
2.375	Iñaki Zangitu	1:33:20

2.438	Migel Angel Lazpiur	1:33:39
2.633	Igor Labaien	1:34:43
2.750	Julen Narbaiza	1:35:18
2.776	Iñaki Irigoien	1:35:25
2.833	Juan Luis Aiausti	1:35:40
2.999	Manuel Varela	1:36:34
3.674	Mikel Etxaniz	1:39:56
3.940	Jose Balentziaga	1:41:13
4.151	I. Elkoroberezibar	1:42:10
4.362	Iñaki Eguren	1:43:00
4.419	Josue Lazkano	1:43:13
4.476	Ion Berasategi	1:43:28
4.529	Lander Juaristi	1:43:44
4.533	Carlos Alde	1:43:45
4.551	Gorka Marzan	1:43:49
4.621	German Alberdi	1:44:08
4.908	Jon Balentziaga	1:45:21
4.911	Ekaitz Mendizabal	1:45:21
5.113	Oskar Vicente	1:46:13
5.150	Amaia Agirre	1:46:28
5.311	Anartz Agirre	1:47:04
5.352	Javier Orbea	1:47:13
5.552	M. Angel Larrañaga	1:48:01
5.830	Lauri Askargorta	1:49:15
5.899	Juan Jose Lopez	1:49:32
5.903	Eneko Ugalde	1:49:33
5.953	Aitor Sotil	1:49:48
6.003	Iñaki Pedrejon	1:50:02
6.136	Manu Larrea	1:50:37
6.138	Pello Belastegi	1:50:38
6.431	Roman Laskurain	1:51:49

6.455	Carlos Telleria	1:51:53
6.520	Alfonso Ena	1:52:12
6.542	Ignacio Ugarte	1:52:19
6.618	Jesus M. Vargañon	1:52:47
6.778	J. Ramon Garitano	1:53:31
6.796	Pedro Arroyo	1:53:37
6.858	Oskar Askargorta	1:53:55
6.864	Ion Aranburu	1:53:57
6.867	Julian Zangitu	1:53:58
6.919	Unai Ugarte	1:54:22
6.935	J. Manuel Lagoma	1:54:26
6.987	Xabier Zangitu	1:54:41
7.200	J. Ramon Balzategi	1:55:47
7.537	Ibon Garitano	1:57:30
7.761	Aritz Beistegi	1:58:38
7.908	Jesus Arazkonaga	1:59:30
8.099	Joseba Leturia	2:00:50
8.108	Fernando Otaño	2:00:54
8.152	Manu Curado	2:01:10
8.159	Aitor Curado	2:01:13
8.329	Luis Maria Sotil	2:02:29
8.342	Iñaki Zabala	2:02:33
8.460	Pello Garitano	2:03:30
8.462	Aitor Garitano	2:03:31
8.465	Ion Ander Garitano	2:03:31
8.467	Xabier Garitano	2:03:31
8.524	Felipe Iñarra	2:03:48
8.529	Eñaut Uriarte	2:03:50
8.539	Francisco Porras	2:03:54
8.735	Antonio Verguizas	2:05:34
9.092	Karlos Zangitu	2:09:16

9.377	Maite Toledo	2:13:19
9.378	Alex Labaien	2:13:19
9.433	Erkaitz Gabilondo	2:14:09
9.519	Hilario Azkargorta	2:15:17
9.805	Aintzane Mendizabal	2:22:24

ANTZUOLA

254	Julen Garitano	1:16:15
338	Gaizka Asensio	1:17:46
420	Iker Larrea	1:18:58
509	Aitor Larrea	1:20:16
879	Joseba Garitano	1:23:52
992	Anselmo Martinez	1:24:39
1.002	Luis Mari Larrea	1:24:44
1.061	Andres Arbulu	1:25:15
1.073	Aitor Gabilondo	1:25:20
1.600	Xabier Legorburu	1:28:48
1.783	Asier Aranguren	1:29:42
2.344	Estebe Olaortua	1:33:10
2.352	Juan Jose Aranburu	1:33:14
2.784	Igor Garitano	1:35:27
3.169	Jose Luis Erostege	1:37:27
3.939	J. Angel Amasorrain	1:41:12
6.140	Iñaki Martinez	1:50:39
7.354	Patxi Olabarria	1:56:33
7.862	Pilar Fernandez	1:59:16
7.870	Jose Angel Zabalo	1:59:17
7.985	Iñaki Legorburu	2:00:01
7.988	Xabier Larrea	2:00:02
8.639	Gorka Iraeta	2:04:54

Deba Garaiko Kirol baliabideen gida kalean

Deba Garaiko Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, herriz herri aztertzen duen kirol baliabideen gida kaleratu berri du. Bertan, Deba Garaian dauden kirol instalazio, elkarte, ekintza eta denden berri ematen da. Mankomunitatearen uste-tan, gero eta kirol mota eta aldaera berri gehiago sortzen ari da.

Eskaera honi aurre egiteko, kirola egiteko aukera eskaintzeaz gain, mankomunitateak edozeinen esku jarri du kirol baliabideen gida. Honako hau, Udaleko Kirol Zerbitzuan, Udal Kiroldegian, igerilekuetan, pilotalekuan eta Kultur Etxean izango da eskuragarri eta dohainik izango da.



1998. urteko
Kirol Gidaren
azala.

Aipaturiko gaiez gain, egiten diren kirol jaiak, kirol politikari buruz antolatzen diren topaketak, ikastaroak, kirol zerbitzu bereziak (adi-

bidez, kirol medikuntza), eskola kirolarien inguruko datuak eta Kirola euskaraz programaren ingurukoak ere aurkitu daitezke. B

Skia egiteko abonoak salgai Pol-Polen

Pol Pol mendizale elkarteak urtero egiten duen bezala, ski estazio-etako abonoak eskuragarri jarri ditu. Hona hemen estazio bakoitzeko prezioak: Astun, 53.000 PTA. Candanchu, 53.000 PTA. Astun eta Candanchu, 73.000 PTA. Formigal, 62.000 PTA. Abonoez gain, ski denboraldian Pol Polekoek aste-bukaerero, Aste Santuan eta San Jose zubian hainbat ski estaziotara irteerak antolatuko dituzte. Aste Santuko irteera Suizako Alpeetara izaten da normalean; iazko irteera La Plange-ra izan zen.

ESKOLA KIROLA. Karteldegia

SASKIBALOA

Benjamin maila:

Mariaren Lagundian

10:00: San Martin A-M. Lagundia A

10:00: San Martin B-M. Lagundia D

11:00: Antzuola A-Aranzadi 3

11:00: Antzuola B-Aranzadi 6

12:00: Aranzadi 1-Aranzadi 2

12:00: Aranzadi 4-Aranzadi 5

Infantil mailako mutilak:

San Biatorren (Arrasaten)

11:15: San Biator B-Aranzadi

FUTBOLA

Infantil mailako mutilak:

Antzuolan

11:00: Antzuola-Ipintza DBH

Infantil mailako neskak:

Atxabalpen (Arrasate)

10:15: S. Fko. Xabier B-Aranzadi

Alebin mailako neskak:

Ipintzan

10:45: Aranzadi 14-Elgeta

11:30: M. Lagundia-Aranzadi 15

11:30: Antzuola-San Martin

12:15: San Martin-Elgeta

Alebin mailako mutilak:

Ipintzan

09:00: San Martin-Aranzadi 9

09:00: Antzuola-Aranzadi 13

10:00: Aranzadi 10-M. Lagundia A

10:00: Aranzadi 12-Elgeta

10:45: M. Lagundia B-Aranzadi 11

Atsedena: Aranzadi 8

ESKUBALOA


Infantil mailako neskak:

Zubiloa kiroldegian (Oñati)

12:00: Txantxi DBH1B-Aranzadi

Ariznoa hirugarren Euskadiko Txapelketan

Joan zen zapatuan Ariznoa Gimnasia Erritmikoko taldeak, Eibarraren izan zen Euskadiko txapelketan hirugarren postua eskuratu zuen. Ane Miren Fernandez, Aintzane Narbaez, Jaione Igartua, Leire Lasa eta Eneritz Olabarria dira jubenil mailako taldea osatzen dutenak.



Irizar 2

☎ 943 76 14 95

JAUJA KIROLAK

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK

PAPER PINTATUAK

MOKETA ETA SINTASOLA

HAREA ZORROTADA

IZTUKU ESPONJATUA

IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

PILI GISASOLA

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.
☎ 943 76 58 83

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Etxea salgai Osintxun.
943 76 49 74.

S. Lorentzo. 943 76 31 16.

Pisu amueblatua San
Lorentzon. 943 76 21 63.

Aranerreka. 943 76 06 52.

S. Arrieta. 943 76 47 86.

Aranerreka. 943 76 52 17.

Toki-Eder. 943 76 51 33.

Erosi

Pisua erosiko genuke
Bergaran. 943 76 57 87.

Errentan hartzeko

Deba Garaian baserria
erosi edo errentan hartu-
ko genuke. 943 71 47 56
(Antonio, gauzez).

Pisua hartuko genuke
alokairuan. 945 46 58 36.

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea salgai Boni Las-
kurainen. 943 76 47 86.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigararak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/
MOTOAK**

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

Tabernari lanak egingo
nituzke. 943 76 37 56.

Neskak haurrak zaindu
edo denda/bulego bate-
an lan egingo luke.
943 76 26 82/76 57 34.

Haurrak zaindu edo etxe-
ko lanak egingo nituzke.
943 78 70 32 (Sara).

Esperientziadun neska
batek helduak zainduko
lituzke. 943 76 32 16.

Edozein lanetarako nes-
ka eskaintzen da.
943 76 35 38.

Erizain tituluak gaiso-
ak, zaharrak edo hau-
rrak zainduko lituzke.
943 76 37 99.

B. Laskurain. 943 76 17 84.

Artzamendi. 943 76 06 25.

Burdiñate. 943 76 40 74.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Masterreka. 943 76 24 57.

Garajea saldu edo alo-
katzen da. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Kruz Gallastegi.
943 76 27 61.

Garaje bikoitza S. Lo-
rentzon. 943 76 58 00.

Ibargarai. 943 15 15 81.

S. Antonio. 943 76 15 37.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Errentan emateko

Garajea alokairuan
Bolun. 943 76 55 26.

Poligonoa. 943 76 32 58.

Errentan hartzeko

Garajea alokairuan
hartuko nuke Zubietan.
943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke.
943 76 05 17.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala komertziala herri
erdian. 100-300 m2 bitar-
tekoa. 943 79 11 71.

Erosi

40 m² inguruko biltegi
edo baxua behar dugu.
Deitu 945 14 17 84
telefonora (17:30-20).

Errentan emateko

100 m²ko lokala aloka-
tzen da Kruz Gallaste-
gin. Deitu 943 76 11
89telefonora.

Taberna-jatetxea alo-
kairuan. 943 76 41 71
/76 37 80 (gauzez).

4. LANA

Eskaintzak

Helduak zaindu edo
etxeo lanak (astebuka-
eran). 943 76 50 46.

Eskaerak

Andre bat behar da,
egun osoz, pertsona
edadetu bat zaintzeko.
Deitu 943 76 47 76
telefonora.

Pertsona bat behar da
etxeo lanak egin eta
haurrak zaintzeko.
Deitu 943 76 06 30
telefonora.

Emakume bat behar da
haurrak zaindu eta
etxeo lanetarako.
943 76 01 11 (gauzez).

Emakume bat behar da

Kizkur
Heapaindegia
Estetika
Solariuma
Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

**Jatetxe batean
SUKALDE-
LAGUNTZAILEA
behar da**
Bidali curriculumak:
295 posta kutxa
20570 BERGARA

**ETXAGI
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

**TABERNA
ZAHARRA**
Jatetxea

bazkari eta
afariak

Telefonoa: 943 76 21 21
ANGIOZAR

**Xabier
Dekorazioak**

Eskaiola
Isolamenduak
Pladurezko lanak

Tf. 943 76 15 94

Gallastegi
Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

umeak zaindu eta etxe-ko lanak egiteko.
943 76 70 33 (gauetz).

Neska bat behar da etxe-ko lanak egin eta haurrak zaintzeko.
943 76 50 02.

Emakume bat behar da gizon bat orduka zaintzeko.
943 79 37 68.

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

Lizentziatuak mate, fisika eta kimika klaseak.
943 76 70 40.

Filologia ingelesean lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu.
943 76 30 28 (Ana).

Majisteritzan diplomatuak klaseak ematen ditu.
943 76 10 17 (Rosa).

Soprano profesionalak kantu klaseak ematen ditu.
943 76 65 24.

OHO eta BBB klaseak.
Deitu 943 76 33 26 telefonora.

Ingeles klaseak.
943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzako ikasleak OHOk klaseak ematen ditu.
943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arte.
943 76 32 93.

1. eta 2. DBH klaseak.
943 76 42 08 (Nere).

Arte Ederretan lizentziatuak pintura, marrazketa eta grabatu klaseak ematen ditu.
943 76 03 83 (Dani).

Lizentziatu batek italiara klaseak emanedo itzulpenak egingo lituzke.
943 76 65 24.

Eskaerak

Italiara klaseak jaso nahi nituzke.
943 76 64 14 (Eva).

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Aprilia Climber 91 motorra salgai.
943 76 07 28 (lon).

Rover 216 (NA-W).
943 72 63 47 (Angel).

Alfa Romeo 33 1700 i (SS-AK). Aire egokitua.
943 79 75 11.

Opel Ascona 1.600 (SS-W) salgai.
943 76 05 13.

Volkswagen Caravelle furgoneta (VI-M) salgai.

943 79 97 35.

Fiat Tipo (SS-AJ) kotxea salgai.
943 76 50 05.

Ford Sierra (SS-S) salgai.
943 76 18 28.

7. ANIMALIAK

Saldu

Artzain-txakurrak eta polizia-txakurrak salgai.
943 76 52 21.

Hispaniel-breton txakurkumeak.
943 76 71 94 (Pablo).

8. DENETARIK

Saldu

Holton tronpeta salgai, egoera onean (75.000 pezeta).
943 76 48 23.

Labadora, hezetasuna kentzeko tresna eta ontzigarbigailua salgai.
Deitu 943 76 00 85 telefonora.

Errepideko Zeus bizikleta salgai. 58 neurrikoa, 25.000 pezeta.
907 34 46 58.

Citroen AX kotxerako edurretarako kateak salgai.
943 76 08 25.

Arrantzarako katiuska luzeak (40 zenbakia) salgai.
943 76 26 84.

Super Nintendoko jokuak eta mandoak salgai.
943 79 57 64.

Ume jaioberriarentzako kapota kotxea egoera onean salgai. 30.000 pezeta.
943 76 15 40.

Erosi

Teklazko akordeoia erosi genuke.
943 76 12 49.

Galdu

Zilarrezko pultsera galdu dut.
943 76 09 22/76 02 24.

Aurkitu

Bolun eraztan bat topatu dut, Begoña izena eta 23-3-90 fetxarekin.
943 76 54 52 (Jone).

9. HARREMANAK

Kontaktua

33 urtetik beherako mutilekin harremanak izango nituzke. Xabi. 91 PK. 20560 Oñati. Erabateko zuhurtasuna.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

PRODUKZIOETAKO LANGILEA

Arratia. 14117/2

PROGRAMATZAILEA

Bilbo. 13747/4

PRODUKZIO-BURUA

Arratia. 14115/2

ELEKTRIZITATE edo ELEKTRONIKAKO PEONI ESPEZIALISTA 2

Bilbo. 14025/2

KALITATE

ARDURADUNA

Arratia. 14118/2

FRIGORISTA

Bilbo. 14052/1

SUKALDARIA

Arratia. 14119/2

INPERMEABILIZAZIOKO OFIZIALA

Bilbo. 14083/2

ZERBITZARIA

Arratia. 14121/2

SALTZAILEA

Arratia. 14124/2

BANATZAILEA

Arratia. 14122/2

ITURGINA

Bilbo. 14269/3

SASKIBALOIKO

MONITOREA

Bizkaia. 14216/3

TABERNAKO

ZERBITZARIA

Bilbo. 13582/3

MANTENIMENDUKO

MEKANIKARIA

Durandaldea. 14162/2

JANTZIGILEA

Gasteiz. 13694/4

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

EDEL TAPIZDENDA

Etterako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



Gozogintzan aintzindari.



Piropoen atala ere badu!

Amodiozko gutunak 1993-1998

Liburudendetan salgai 1000 pezetan



Kultur Errota: kultur ibilbideak eskaini eta harremanak bideratzeko zirkuitua abian

Aste honetatik Gabonak bitartean, 25 emanaldi Euskal Herri osoan zehar

Euskara Elkarte eta Herri Aldizkariaren Topaguneak Kultur Errota deritzan egitasmoa jarriko du martxan aste honetan. Proiektu erraldoi honen helburua honakoa da: Euskal Herriko kultur gile guztiei –hasi berri diren artistei zein ibilbide profesional luzea dutenei– euren lana zabaltzeko zirkuitu bat eskaintzea.

Nerea Navarro

Aste honetatik aurrera 25 artista gitarra afinatzen, ahotsak fintzen edota, beste batzuen kasuan, testuak errepasatzen hasiko dira. Izan ere, aste honetatik aurrera 25 emanaldien bira hasiko da. Kultur Errotaren hegala martxan jarriko dira.

Euskara Elkarte eta Herri Aldizkariaren Topaguneak euskaraz sortzen duten artistei zirkuitu kultural berri bat eskaini nahi die. Ibilbidea 11 euskara elkarte osatuko dute eta horietatik guztietatik igaroko dira Euskal Herriko hainbat abeslari eta olerkari.

Jardun-ez gain, beste herri batzuetako honako euskara elkarteek hartuko dute parte: Eta Kitto (Eibar), AED (Arrasate), Berbaro (Durango), Laixan (Oñati), Elgoibarko Izarra (Elgoibar), Geu Gasteiz (Gasteiz), Loramendi (Aretxabaleta), Ttakun (Lasarte-Oria), Zuhatza (Deba), Zenbat Gara (Bilbo).

Topaguneak jarriko du martxan Kultur Errota. Proiektu honen asmoa, euskara elkarten kultur eskaintza aberasteaz gain, belaunaldi gazteei aukera berriak eskaintzea ere bada. Hori da Errotaren dinamizatzaileek azpimarratu nahi dutena: "Profesionalen gune izateaz gain, oso garrantzitsua da Kultur Errotak belaunaldi gazteen aldeko apustua egitea".

Hitzak lehentasuna

Kultur Errotan hitza erabiltzen duten ekitaldiek izango dute lehentasuna eta, jakina, gehienak euskaraz izango



Michel Ducau, Errobiko kide izandakoa, eta Caroline Phillips domekan Pol-Polen izango ditugu.

dira. "Argi dago kultur ibilbidea sortzean hitzari garrantzi handia eman behar zaiola. Azken batean, Kultur Errotak Topagunea osatzen duten euskara elkarten helburuan –euskararen normalizazioan– eragile eta laguntzaile izan nahi du".

Halere, euskaraz ez diren emanaldiek ere izango dute lekua zirkuituan, "horrelakoetan, hizkuntza gutxituei emango zaie aukera, beste hizkuntzetaiko kultur adierazpenak jasotzeko aukera ona izan daitekeelako".

Tradizioa eta berritasuna

Kultur jarduera tradizionalak eta berriak uztartuko ditu egitasmo honek. "Dudarik gabe, estilo guztiei eman nahi

diegu aukera. Tradizionalak diren kultur jarduerekin batera, ideia berrien gune izango da Errota, proposamen estetiko desberdinen bilgunea; hartzaileak ohar daitezela euskal kulturaren esparrua zabala dela; formula modernoak badaudela eta berriak sortzeko ahalmena bada goela".

Belaunaldi guztien gune

Topagunearen egitasmo berri honek belaunaldi guztiak biltzeko ahalegina egingo da. Antolatzen diren emanaldiak publiko zabal batentzat izango dira. Dena den, gazteen eskaintzei nola baitaiteko lehentasuna eman nahi zaie, "batez ere, hizkuntza aldetik giza talde honek duen garrantziarengatik".

Topaguneak bultzatutako egitasmoan 11 euskara elkarte, tartean Jardunek, hartuko dute parte eta Bergarako bi musika talderi emango zaie aukera

Lurraldetasuna irizpide

Euskal Herriko lurraldeen arteko komunikazioa erraztuko duen tresna izateko helburuarekin jaio da ibilbidea. Lurraldeetako tradizioa eta horietan dagoen eskaintza artistikoa ezagutzeko bitartekari izan nahi du. Hori horrela izan dadin Iparraldeko zein Nafarroako artisten lanak ezagutzeko modua izango da proiektu hau.

Ilusioa eta gogoia

Topaguneak bi urte daramatza lanean eta denbora horretan euskara elkarte eta herri-aldizkari guztiak bilduko dituen gune bat izatearen alde lan egin du. Kultur Errota hori lortzeko beste pauso bat izango da eta Topaguneak indar eta ilusio guztiak jarri ditu ibilbide horren alde.

Apustua, formato txikiko muntaiak antolatzea izango da, xumeak eta, aldi berean, beroak. Euskara elkarteek eskainiko dituzten espazioak txikiak izateaz gain, artista eta entzuleen arteko harreman zuzena eta gertukoa ahalbideratuko dituen emanaldi-sortak jarri nahi ditu aukeran gune honek.

Eta emanaldi sorta horiek kultur munduan urte asko daramatzatenek edo hasi berri direnek osatuko dute. Guztira, 25 artista: jaza, folka, dantzak, errezitaldiak, pailazoak... Estilo horiek guztiek emango diote mugimendua Errotari. Izen ezagunek eskaintzen duten kalitatea ziurtatuta egoteaz gain, bidea egin edo egin nahian hasi berri diren taldeek ere zer esana eta zer eskainia badutela adieraziko da egitasmo honetan.

Kultur Errota Bergaran

Esan dugun bezala, Kultur Errota aste honetan jarriko da martxan. Domezkan Bergarara helduko da, hain zu-

Artista profesionalak eta hasten daudenak

Kultur Errotak belaunaldi gazteen aldeko apustua egingo du. Beraz, artista profesionalaz gain, herri bakoitzean hasten daudenak ere izango dute tokia.

Bergarako Wonder Brass eta The Old Boys Quintet taldeek ere parte hartuko dute. Hona zerrenda osoa:

Michel Ducau (baionesa), Joseba Tapia (lasarte-

rra), Joxan Artze (usurbildarra), Xabier Muguruza (irundarra), Caroline Phillips (baionesa), Mikel Urdangarin (durangarra), Juan Antonio Urbeltz (donostiarra), Patti Kaleko (Txingudi bailara-koak), Ander Lipus (markinarra), Porrotx pailazoa (lasarte-rra), Petti (beratarra), Katalin Habans (Larresorokoa), Bi Luma (aretxabaletarra), Wonder Brass (bergararrak),

Fanbaltxa (debarrrak), Marti-nola (oñatiarrak), Arima Beltza (elgoibarrak), Iñaki Labaka (lezotarra), The Old Boys Quintet (bergararrak), Urtzi Urrutikoetxea (bilbotarra), Iñaki Salbador (donostiarra), Mixel Etxekopar eta Maddi Ohienart (zuberotarrak), Tabu tabar (lasarte-rrak), Mai Gorostiaga (tolosarra), Itzaletik (azkoitiarrak), The Porter Sharp (irlandarrak).



Joseba Tapia ere izango da Kultur Errotan.

zen ere, Michel Ducau-k eta Caroline Phillips-ek, eta Ander Lipusek Pol-Polen iluntzeko 20:00etan eskainiko duten kontzertuarekin. Sarrera doan izango da. Bestalde, Gabonak arte, beste hiru bat emanaldi antolatuko dira.

Errotaren babesleak

Kultur Ibilbide berri honek hainbat elkarte eta artistaren oniritzia jasotzeaz

gain, Elkar eta Eusko Jaurlaritzaren babesa ere izan du. Horrelako zirkuitu bati aurre egiteko ezinbestekoa izan da bi erakunde horien laguntza.

Dagoeneko errotaren hegalak jarri dira martxan, eta errota geldi ez dadin ur korrontea indartsua izatea besterik ez da falta.

Zergatik Kultur Errota?

Egitasmo honen helburua kultur ibilbideak eskaintzea eta harremanak bideratzea da. Ez soilik goitik datorren kultur mota, baita herri arnasetik jaioa ere.

Eta, artoa eta gariaren antzera, arnasa ere garatu eta finduko bada, eguneroko bizitzan benetan txertatuko bada, errotara eraman beharra dago. Hortik kultur errotarena.

Elkarte bakoitzak bere errota jarri beharko du martxan. Izen handiko kulturgileei plaza bero bat eskainiz eta tokian tokiko artistei aukera emanez.

Kultur Errotak, azkenean, euskal kulturaren osagai izan nahi du, Euskal Herri guzitik bere arto-haziak zabaldu nahi dituen kultur egitasmo berria. B

GURIDI altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Ezbeharrak. 2. Aran-mota. Herri hizkeran, eta. 3. Handi. Ez on. 4. Unatu. Oinarrizko edari. 5. Neoia. Buztanaren hasieran. Edari alkoholduna. 6. Nafarroako ibaia. Saldu aditzaren infinitibo. Tona. 7. Umea. Sexu eme. 8. Bat. Kontsonante bikoitza. Kaltzio oxidoa. 9. Katearen azken maila. Potasioa. 10. Bururatua. Aiako seme-alaba.

Goitik behera

1. Erdipurdiko. 2. Amaiera. Kanpo. 3. Toki hartara. Gurtza egin. 4. Barre xumea. 5. Tresna. Röntgen. Boroa. 6. Non atzizkia. Bostehun. Pilotan hasteko pausua. 7. Batuketaren on dorioa. ... danez, dirudienez. 8. Bokala. Hamar. Olagizona. 9. Gipuzkoako herria. Egile atzizkia. Kontsonantea. 10. Pluralean, lauki-mota.

Soluzioa

10 karatuek
9. Atan. Le. R.
7. Batura. Agi. 8. E. X. Olatra.
5. Gailu. R. B. 6. An. D. Sakea.
3. Hara. Gurtu. 4. Irribarra.
1. Nolanahiko. 2. Akabera. At.
Goitik behera
9. Katebagi. K. 10. Otu. Alar.
7. Haurra. Alu. 8. I. Rr. Karaa.
5. Ne. Bu. Rona. 6. Arga. Sal. T.
3. Larri. Txar. 4. Abaildu. Ur.
1. Nahigabeak. 2. Okarara. Ta.
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Kale honetako 14.ean zegoen XVI. mendeko etxe dotorea bota egin zuten 1919an. Zein zen bere izena?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Infernukua** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Izaskun Iztuetaren** izan da: Toki Ona bodegoian bi lagunendako afaria. Zorionak Izaskuni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: "**Txikirri**" Galde Debalde: **1-A, 2-C, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____ Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka 23. Tf: 943 76 18 49

Gozogileen semea, Xabier Mujika "Musti" k (29 urte) bere gurasoen ofizioari utsi dio. Dagoeneko zazpi urte daramatza Mujika gozotegian lanean eta joan zen uztailetik ezkontuta dago.

Gozogilea bokazioz ala tradizioz?

Tradizioz.

Nork erakutsi dizkizu gozogintzaren sekretuak?

Gurasoek; aitak teoria, amak praktika.

Laneko gauzarik onena?

Astebarruan nahiko lasai ibiltzen garela.

Eta txarrena?

Kontrakoa, astebukaeretan guttiz

lanpetuta egotea.

Lan gehien noiz?

Gabonetan eta uztaile aldera. Gutxien,

berriz, azaroan eta otsailean.

Gozozalea zara?

Bai.

Pastelak egin ala jan?

Egin.

Pastel txikiak ala handiak?

Jateko, txikiak.

Pastelak jateko ordurik onena?

Edozein ordu da ona...

Tostoiak ala errellekoak?

Errellekoak.

Tartarik gustokoena?

San Markos tarta.

Jatetxean zein postre eskatzen duzu?

Etxeko kopa.

Sukaldari ona zara?

Moldatzen naiz. Nire espezialitatea?

Spagetiak, haragi pikatuarekin, piperrekin,

gaztarekin...

Platerik gustokoena?

Erreboiloa.

Xabier Mujika

Edari bat?

Ardo beltza.

Afizio bat?

Puzzleak, gerra jokoak, xakea...

Bizio bat?

Erretzea. Egunean ia paketea erretzen dut.

Mania bat?

Ordua galdetzea. Erlojurik ez dut eroaten.

Parrandazalea zara?

Bai, gustatzen zait.

Txikitari zer izan nahi zenuen?

Futbol edo saskibaloj jokalaria.

Gustoko jantzi bat?

Kamiseta tirantedunak.

Gehien oparitu duzun gauza?

Konpaktoak.

Erositako azkena?

"Manolin, el medico de la salsa", kubatar

batena.

Kuban, zer gustatu zitzaizun gehien?

Jendearen izaera eta kultura eta ron-a.

Kitarra jotzen duzu oraindik?

Bai, etxean akustikoarekin ibiltzen naiz.

Angiolillo-ren abestirik gogokoena?

"Laberinto".

Musika talde bat?

Asko. Pearl Jam, Juan Perro...

Nora egingo zenuke bidaia?

Estatu Batuetara: Orlandora, Kaliforniara...



ederTU

Azaroaren 16an, astelehena,

altzari eta dekorazio denda berria irekiko dugu

Eroski aurrean. Sarrera Masterreka 9tik.

Barrenkalea 23

Telefona eta faxa: 943 76 29 65

Masterreka 9



Santo Tomas eguneko bazkaria

Ipintza institutuko argazki artxiboan miatu eta Santo Tomas Akinokoaren eguneko erretratu bat ekarri dugu oraingoan atal honetara. Gaur, eguakitza, ikasleen eguna ospatzen da eta aproposa iruditu zaigu, San Tomas eta San Juan Bosco urtarrilean ospatzen badira ere.

Sasoi batean, institutuko azken ikasturtean zebiltzanek, UBI ikasketak egiten zihardute- nek, irakasleekin batera Lasa Jatetxean bazkal- tzen zuten. Argazkia 1980. urte ingurukoa da eta orduko argazkilari ofizialak, Imanol Iriagarai

ri apaizak, bazkal ostean ateratakoa da. Ondu bazkaldu zutela bistan da; ondoren zer egin zuten batek daki, baina ordu txikietan oheratu- ko ziren seguruen.

Honako hauek dira argazkian agertzen di- renak, ezkerretik eskumara: Carlos Cid, Javi Moreno, Ramon Elgarresta "Hondartza", Fer- nan Migura eta Joseba Labaka.

Argazkia: Imanol Iriagarai

OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

Gaskide, S.L.

ITURGINTZA OROKORRA
GASA ETA KALEFAKZIOA

☎ 943 76 49 00

HELBIDE BERRIA:
Aritzetako San Migel 8-10
BERGARA



umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZI!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Gidari onenek

OHOREZKO-MATRIKULA

merezi dute

Aldatu zaitez MAPFREera

Azkartu



itzazu zure bonifikazioak

Orain zure automobilaren aseguruia aldatzea **ez zaizu ezer kostako.**


Mapfreren Ohorezko Matrikula Planarekin, oraingo polizaren antiguedadeari eutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria).

Lor ezazu **bonifikaziorik haundiena denborarik motzenean.**

Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

**ZABALDU
BERRIA!**

MIZPILDI



OKINDEGIA

**Eta kafe
dastaketa!**

Ordutegia:

**07:30-13:30
eta
16:30-20:00**

**Domeka
goizetan ere
zabalik!**

Matxiategi 1
943 76 72 73

centro hogar MUEBLES



a, eme interiores

sukaldea



Sofa
leku

GRUPO

Amuebladora
Mondragonesa

C/ Zigarrola, 1 pab. 6-10 • C/ Garibai, 9 • 20.500 ARRASATE

Tel. 943.791503 - 943.771492 • Faxe 943.791498